

---

x

# LAG

EAEko Lurralde  
Antolamenduaren Gidalerroen  
Berrikuspenean  
**Parte Hartzeko Plana**

---

x

# DOT

**Plan de Participación**  
para la Revisión de las  
Directrices de Ordenación  
Territorial de la CAPV

---

x

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN ETA LURRALDE  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y POLÍTICA TERRITORIAL

# AURKIBIDEA

AURKEZPENA	2
0. HITZAURREA	3
1. PLANTEAMENDUA	4
2. METODOLOGIA	6
2.1. Printzipioak	6
2.2. Kanalak	7
2.3. Eskema	8
3. EGITURA	9
3.1. Egitura orokorra	10
3.2. Kronograma	10
4. EKINTZAK	12
1. Fasea: Prestakuntza	13
2. Fasea: Galdeketa	19
3. Fasea: Parte-hartzea	25
4. Fasea: Amaiera	34
5. KUDEAKETA-SISTEMAK	40
5.1. Komunikazioa eta zabalkundea: gizarteari mezuak helarazteko sistemak	41
5.2. Hizkuntza teknikoa hartzailera egokitzeko lana	45
5.3. Berdintasunezko prozesu bat sustatzeko neurriak	46
5.4. Idazkaritza Teknikoa	49
5.5. PROZESUAREN ERREGISTRO-SISTEMA	52

**Parte hartzeko Plan** honek, Parte hartzeko Gidarekin batera ([www.euskadi.eus/lag-berrikuspenna](http://www.euskadi.eus/lag-berrikuspenna)), EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenean parte hartzeko prozesuaren edukiak eta jarraibideak erakusten ditu.

Vitoria-Gasteiz. 2016ko apirila

## AURKEZPENA

2015eko uztailaren 27an, **Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak** Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) berrikusteko prozedura hasteko erabakia hartu zuen eta, orobat, berrikusketa hori zuzentzeko eta prestatzeko ardura Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren esku uztea erabaki zuen. Horrez gain, akordio horretan Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen berrikusteko prozesu **parte-hartzaile** zabal baten baitan egingo zela. Hori horrela, aipatutako akordioak **Berrikuspenaren Aurrerapenaren aurreko agiri gisa, bi dokumentu** prestatzea proposatzen du:

- Alde batetik, **Oinarrizko Dokumentua**, Administrazio eta Lurralde Plangintza Sailburuordetzaren zerbitzu teknikoek sailaren baitan egindako dokumentu teknikoa. Bertan, parte hartzeko prozesuan mahai gainean jarriko diren zenbait gai azaltzen dira eta prozesua martxan jartzeko abiapuntua da.
- Bestetik, **Parte hartzeko Plana**, hau da, Gidalerroen Berrikuspenean parte hartzeko prozesua garatzeko ibilbide-orria. Ez dugu ahaztu behar parte-hartze hau Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legeak ezartzen duen izapidea baino lehen doala eta hartara, helburua lurralde-eredua definitzen parte hartzea dela.

**Parte hartzeko prozesuari Euskal Hiria 2015 kongresuan eman zitzaion hasiera**, Aurrerapenaren aurreko agiria den Oinarrizko Dokumentua aurkeztu zenean. Parte hartzeko prozesua 2016. urtean kokatzen da eta azaroaren amaieran Donostian egingo den Euskal Hiria 2016 kongresuan amaituko da.

Parte hartzeko prozesurako **lehiaketa-prozedura irekia** abiarazi zen eta prozedura horretan, Paisaje Transversal enpresa izan da esleipenduna. Orain aurkezten dugun dokumentua Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak Paisaje Transversal enpresak aurkeztutako proposamenari egindako egokitzapena da.

**Paisaje Transversal** parte hartzeko prozesuetako hiri- eta lurralde-gaietan eskarmentu handia duen enpresa da. Enpresaren jardunbideak entzute aitortua du komunikabide digitaletan, haien web-plataformari esker eta Estatuan zein nazioartean duen ikusgarritasunari esker.

Parte hartzeko prozesua egiteko, Paisaje Transversalek **Inguru** enpresaren laguntza du. Inguruk eskarmentu handia du taldeen dinamizazioan eta ingurumenaren eta hirigintzaren alorretako parte hartzeko prozesuetan. Enpresak, orobat, sentiberatasun berezia du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko politikak halako prozesuetan txertatzeari dagokionez.

Bestalde, **Ingurumen eta Lurralde Politika Saila** da parte hartzeko prozesuaren buru, Administrazio eta Lurralde Plangintza Sailburuordetzaren eta Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzaren eskutik. Horrez gain, erakundeen parte-hartzeari dagozkion eginkizunak hartzen ditu bere gain eta parte-hartzearen ondotik adostutako eduki teknikoak txertatzen ditu Aurrerapenaren dokumentuan.

## 0. HITZAURREA

Dokumentu honek **Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG)** berrikusteko **Parte hartzeko Plana** aurkezten eta garatzen du.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak EAEko lurraldearen plangintza orokorra egiteko tresna nagusia dira eta **1997an onartu ziren**, orain dela ia bi hamarkada. Azken urteotan egindako berrazterketaren eta birplanteamenduaren hurbilketaren ostean, **2015eko uztailaren 27an** Berrikuspena egiteko prozedura abiarazi zen.

Ezarritakoaren arabera, hiru urte inguru iraungo duen prozedura honetan, administrazio-izapidetzearen mugarriek (Hastapenak, Aurrerapena, Hasierako Onespina eta Behin Betiko Onespina) urtero azaroan egiten den **Euskal Hiria** kongresuekin (2015, 2016, 2017 eta 2018, hurrenez hurren) bat egingo dute.

**Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenean parte hartzeko prozesua** Eusko Jaurlaritzak EA Erentzako lurralde-eredu berriaren oinarriak gizartearen parte-hartzearekin definitzeko helburuaz sustatutako kontzertazio publikorako mekanismoa da. Prozesua **2016ko apirila eta azaroa bitartean** garatuko da. Emaitza Lurralde Antolamenduaren Gidalerro (LAG) berrien **Aurrerapena** izango da eta Euskal Hiria 2016 kongresuan aurkeztuko da.

Berrikuspen hau **giltzarria** da EAEko errealitate fisikoa eta lurraldearen zein politika publikoaren errealitatea guztion artean eraikitzeko eta, horrenbestez, zehaztasun handiko prozesuan oinarritzen da. Halaber, EAEko lurralde-eredua eraikitzeko egindako ibilbide eta ahalegin historikoak erantzukizun handia eskatzen du eta berrikuspena behar bezala eta modu partaidetuan egitea erronka motibatzailea da.

Dokumentua honako atal hauetan egituratzen da:

- 1. Planteamendua.** Parte Hartzeko Prozesuaren parte diren pertsonen konpromisoak eta ahaleginak kokatzen dituzten oinarriak edo abiapuntuko baldintzak eta helburuak proposatzen dira.
- 2. Metodologia.** Atal honek prozesuak oinarritzat hartuko dituen parte hartzeko tresnei eta lan-sistemari buruzko zenbait gako azalduko ditu eta, orobat, prozesuaren antolaketa kontzeptuala erakusten duen grafikoa.
- 3. Egitura.** Faseak eta Kronograma. Prozesua egituratzen duten hurrengo faseak deskribatzen dira eta denboraren plana edo kronograma erakusten duen grafiko batean irudikatzen dira.
- 4. Ekintzak.** Garatu beharreko eginkizunak eta ekintzak, lanen edukiak eta fase bakoitzean lortu beharreko emaitzak zein diren zehazten da.
- 5. Kudeaketa-sistemak.** Atal honetan prozesuaren alderdi tekniko garrantzitsuenak zerrendatzen dira: komunikazio-plana edo zabalkunde publikorako plana, parte hartzeko prozesu guztia nola erregistratuko eta dokumentatuko den eta parte-hartzea berdintasunez garatzeko zer neurri hartuko diren.

# 1. PLANTEAMENDUA

Lehenik eta behin, **bereizi egin behar ditugu Parte hartzeko Prozesua eta EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak Berrikusteko Prozesua bera.**

Hemen aurkezten dugun parte hartzeko prozesua Berrikuspenaren hasieran gertatzen da; gizarte-prozesu bat da, paraleloa eta laburragoa. Bertan, EAEko herritar guztiei egiten zaie deialdia Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen ideia berria ezagut dezaten eta parte har dezaten. Horren guztiaren emaitza Aurrerapenean islatuko da lehenengo eta berrikusitako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan geroago.

Gainera, parte hartzeko prozesuaren baitan **erakundeen parte-hartzea** eta **gizartearen parte-hartzea** bereizi behar ditugu. Erakundeen parte-hartzea Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari dagokio, hainbat organoren parte-hartzearen bitartez (Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea - EAELAB, Lurralde Politikarako Aholku Batzordea, etab.). Parte hartzeko Plan honen funtsezko xedea, ordea, gizartearen parte-hartzea da.

Azkenik, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspena onartzeko **izapidea** nabarmendu nahi dugu; horretarako, Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak ezarritako izapideak hartuko dira kontuan.

Esan behar dugu, halaber, Sailak, gaiaren kokapen orokorra egiteko asmoz, Gidalerroen Berrikuspenaren “**Oinarrizko Dokumentua**” ekarri diola parte hartzeko prozesuari. **Gizartearen parte-hartzearen ekarpenak jasotzen dituen azken dokumentuarekin** emango zaio amaiera parte hartzeko prozesuari. Berrikuspenaren Aurrerapena Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak idatziko du baina kontuan hartu beharko du azken dokumentu horretan jasotakoa.

EAEko funtzionamenduan Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek berebiziko garrantzia dutela ikusita, haien Berrikuspena lurraldearen arautze-sistema hobetzearen aldeko apustu irmotik sortu behar da.

Prozesuaren Prestakuntzaren (**1. Fasea**) ondoren, ahalik eta erakunde eta eragile gehienei zenbait galdeketa egingo zaizkie (**2. Fasea**) prozesua baliozkotzat jo dezaten eta Parte hartzeko Gida osatuko da. Gizarteak parte hartzeko prozesua (**3. Fasea**) irekiko da herritar guztientzat eta, azkenik, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenaren Aurrerapena prestatuko da, prozesu osoan egindako lanaren ondorioak kontuan hartuta (**4. Fasea**).

Esan behar dugu prozesuak badituela bere garapena baldintzatuko duten zenbait **berezitasun**:

- Lehenik eta behin, oso kontuan izan behar dugu Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek EAE osoan dutela eragina eta **maila handiko** ikuspegia dutela. Beraz, eguneroko bizimoduaren zenbait alderditan eragina duten arren, Lurralde Antolamenduaren Gidalerro berrietan txertatuko diren ideiak nahiko maila handikoak izango dira.
- Horren ondorioz, baliteke erakundeek eta **profil tekniko**a duten pertsonak modu aktiboagoan parte hartzea. Halako egoeraren aurka egin ahal izateko, gizarte osoaren parte-hartzea sustatuko da eta horretarako, **teknikoa ez den hizkuntza inklusiboa** erabiltzen duten ekintzak egingo dira, xedea gizarte osoak bere burua islatuta ikusten duen eredu sortzea baita.

- Berrikuspen honen helburua da hurrengo 20 urteetako EAE ikuskatzea.
- Prozesuak ahalik eta gardentasun eta irekitasun mailarik handiena izatea proposatzen dugu.

**Horrenbestez, prozesuaren erronkarik handiena da indarrean dauden lurralde-tresnen multzoan oinarritzen den lurralde-eredu berria, eguneratua, adostua eta etorkizuneko ikuspegia duena proposatzea.**

Hona hemen parte hartzeko prozesu honen helburu nagusiak:

- Ahalik eta EAEko gizartearen laginik adierazgarriena eta orekatuena bihurtzea Lurralde Antolamenduaren Gidalerro berrien partaide.
- Pertsona eta kolektibo guztietara irekita dagoen prozesu inklusiboa garatuko dela bermatzea, generoaren ikuspegiari eta gizarte-egoera ahuleko taldeei arreta berezia eskainiz.
- Gizarte-eragileekin eta eragile ekonomikoekin adostutako prozesua izatea eta hartutako erabakiak gardenak izatea.
- EAEko lurraldearen errealitatea ardazten duten ikuspegiaren eta mailen arteko koordinazioa ahalbidetzea.

Parte hartzeko prozesuaren Planteamendu hau gizartearen parte-hartzearen garapena zehazten duen **Parte hartzeko Gidarekin** osatzen da.

## 2. METODOLOGIA

### 2.1. Printzipioak

Halako ezaugarriak dituen proiektuak eskatzen du diziplinaz gaindiko lan teknikoak egitea eta erakunde zein gizarte mailako eragileen arteko koordinazioa egitea. Hortaz, proiektuaren egitura metodologikoak bere konplexutasunaren arabera izan behar du.

Metodologia honako printzipio hauetan oinarritzen da:

- **Eragileen arteko lankidetzak:** ezinbestekoa da, negoziazioari, lankidetzari eta baterako helburuen eta estrategien definizioari bidea errazten dioten espazioen eta mekanismoen bitartez, eragile desberdinek parte hartzea -udaleko, Foru Aldundietako zein Autonomia Erkidegoko erakundeak, eragile ekonomikoak, kulturalak eta gizarte-eragileak.
- **Diziplinaz gaindiko ikuspegia:** proiektuaren nolakotasuna aintzat hartuta, gauzatuko diren jardueretan parte hartuko duten diziplina edo sail anitzetako eta desberdinetako eragileen arteko lan koordinatua erraztuko duen ikuspegi metodologikoa proposatzen dugu; besteak beste: ingurumena, jarduera ekonomikoa, hirigintza eta mugikortasuna eta ondarea.
- **Proiektuen zabalkundea eta ikusgarritasuna:** proiektua garatzeaz gain eta haren ezinbesteko osagarri gisa, prozesuaren emaitzak ikusgai egingo dira. Helburu horrekin, fase guztietan zabalkunderako eta komunikaziorako tresnak baliatuko dira eta horien bidez, dibulgaziozko ekintzak eta komunikazio-kanpainak egingo dira eta Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko web-orrian prozesuan sortutako dokumentuak jarriko dira.
- **Herritarren parte-hartzea:** hurbileko ingurunean arrakasta izango duela bermatzeko, proposatzen dugun metodologiak herritarren parte-hartzea eta jendea proiektuaren balioekiko sentikor bihurtzea sustatzen du. Hala, sentsibilizaziorako ekintzak eta ekintza pedagogikoak garatuko ditugu jasangarritasunaren balioa eta lurraldearekiko nortasuna sustatzeko, betiere herritarrengan interesa piztuko duen ikuspegi ludiko eta erakargarri batetik.
- **Ebaluazioa eta jarraipena:** denboran luzatzen diren halako proiektuak garatzeko, beharrezkoak dira jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak. Izan ere horiek aukera ematen dute emandako urratsak ikusgai egiteko, egindako jarduerak ikuskatzeko eta babesa emateko eta gerta litezkeen halabeharren aurrean hartutako erabakiak moldatu ahal izateko. Horretarako, teknikarien eta herritarren ikuspegiak barne hartzen dituzten sistemak proposatzen ditugu. Hala, lurralde-antolamenduan parte hartzen duten eragile desberdinak barne hartzen dituzten jarraipen-taldeak eratuko dira.

## 2.2. Kanalak

Azaldu ditugun printzipioetatik abiatuta, bost kanaletan oinarritutako ekintzen inguruan eraikitako metodologia baliatzea proposatzen dugu. Denboran paraleloak baina edukian zeharkakoak diren bost estrategia. Bakoitzak elkarren osagarriak diren zenbait helburu lortu nahi ditu baina, oro har, osotasuneko ikuspegi batetik heltzen diote proiektuari: Zabalkundea edo Ikusgarritasuna, Herritarrak edo Pedagogia, Parte-hartzea edo Adostasuna, Gobernantza edo Erantzunkidetasuna eta Dokumentazioa edo Erregistroa.

### Zabalkundea

Proposamenak ikusgai bihurtu nahi ditu, bai tokian tokiko mailan bai maila orokorrean; orobat, proposamenen gardentasuna bultzatu nahi du sare sozialek eta zabalkunderako tresna digitalek eskaintzen dituzten aukerak baliatuz nagusiki, baina, hargatik, komunikabide tradizionalak alde batera utzi gabe.

Proiektu integraletan, zabalkundeak proiektuarekiko konpromisoa hartu duen tokiko taldea zabaltzea lortzen du eta, kanpoan duen oihartzunari esker, maila orokorragoan iritziak trukatzea lortzen du eta hartara, proposamenak aberastu egiten dira. Bigarrenik, zabalkundeak ematen duen gardentasuna presio kolektiboa egiteko tresna bihurtzen da eta hala, proposamenak pentsatu bezala egiten eta betetzen ari diren ala ez ikuskatzeko aukera ematen du.

### Herritarrak

Kanal honetan, pedagogia eta informazioa baliatuz, ingurumenarekiko eta lurraldearekiko kontzientziazioa eta erkidego-nortasuna jorratzen dira.

Hartara, elkarlaneko mugimendua, hiriko espazio publikoaren, landa-eremuaren eta naturagunearen balioak, jasangarritasunaren printzipioak eta prozesuak errazteko tresna digitalek duten ahalmena sustatzen da.

### Parte-hartzea

Parte hartzeko kanalak egituratzen ditu prozesu osoaren lan egiteko eta erabakiak hartzeko prozesuak. Tokian tokian zein oro har, lurralde-ereduak proposatzeaz arduratzen da eta parte-hartzea osatzen duten edukiak jorratzen ditu.

### Gobernantza

Gizartearekiko erantzunkidetasunerako mekanismoak ezartzen ditu. Nahiz eta prozesua Administrazioak bultzatzen eta babesten duen, bertan parte hartuko duten eragileek, direla erakundeak edo gizabanakoak, ez dira prozesuaren baitan egongo soilik haien iritzia eman dezaten, baizik eta prozesuaren beraren partaide bihurtzeko daitezten.



## Dokumentazioa

Prozesuaren trazabilitatea eta gardentasuna honako hauen mende daude: jorrotutako eduki guztien erregistroa eta dokumentazioa (baita zabalkundea ere), gordetzeko eta filtratzeko sistema eta geroko integrazioa.


Alde batetik, akta batek ekintza bakoitzaren emaitzak jasoko ditu ateratako ondorioak batuz. Informazio hori web-orrian egongo da ikusgai eta mailaren, gaiaren eta eragile edo taldearen arabera antolatuta agertuko da.

Dokumentazio-prozesuaren gakoetako bat ekitaldien artean egongo den erlazioari egingo zaion jarraipenean edo trazabilitatean oinarritzen da. Hala, argi utzi behar dugu zer informazio gertatzen den zer ekintzatik zer ekintzara, eta zer kontakizun doan bestearen ondotik azken proposamena eraikitzen ari garela; izan ere, azken proposamena aurreko guztien batura izango da.

Halako ezaugarriak dituen prozesu batean, parte hartzen duten eragileak hainbeste eta hain anitzak izanik - batzuek elkarrengandik oso urrun dauden iritziak dituzte-, funtsezkoa da jasotzen diren iritziei, gai gatazkatsuei eta izan litezkeenei eta parte hartzeko hainbat estrategiaren emaitzei gardentasuna emango dieten mekanismoak ezartzea.

## 2.3. Eskema

Ondorengo grafiko honek lan-eskema aurkezten du ikuspegi metodologikotik. Bertan, Prozesuaren garapenean bereizten diren 4 faseez gain, aurreko atalean aurkeztutako 5 kanalak ere hartzen dira aintzat.



## 3. EGITURA

### 3.1. Egitura orokorra

Aurreko eskemak erakutsi duenez, Prozesua 4 fasetan diseinatu da; ekintza batzuetan faseak gainezarri egiten diren arren, ondoz ondoko faseak dira. Faseen ordena eta edukia funtsezkoak dira prozesuaren funtzionamendu zuzenerako.

#### 1. Fasea: Prestakuntza

Prozesua ikuspegi guztietatik planifikatzeko eta prozesuaren oinarriak finkatzeko hasierako etapa: parte-hartzearen egitura, ekintzak, zabalkundea edo komunikazioa, eragileen arteko koordinazioa eta informazioa biltzea.

#### 2. Fasea: Galdeketa

Garrantzi handiko fase honetan, eragile parte-hartzaileekin batera planteamendua baliozkotzen da garapen egiaztatuagoa eta partekatuagoa bermatzeko. Parte hartzeko geroko fasearen ikusgarritasunari ekiten zaio.

#### 3. Fasea: Parte-hartzea

Etapa honetan, proposamenak adosteko lana egingo da eragile-talde guztiekin hainbat mailatan: Eremu Funtzionala, Lurralde Historikoa eta EAE.

#### 4. Fasea: Amaiera

Amaierako etapa honetan, egindako lan guztiaren itzulketa egiten da eta Aurrerapena osatuko duten ondorioak idazten dira.

### 3.2 Kronograma

Astekako kronograma honek garatuko diren ekintzen gutxi gorabeherako kokapena adierazten du. Eta faseak eta ekintzak denboran nola erlazionatzen diren erakusten du.

	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA
	1. HILA	2. HILA	3. HILA	4. HILA	5. HILA	6. HILA	7. HILA	8. HILA	9. HILA	10. HILA
<b>1. FASEA: PRESTAKUNTZA</b>										
01	Erakundeek parte-hartzeko espazioak sortzea									
02	Prozesuaren aurretiko informazioa garatzea									
03	Prozesuaren irudia sortzea									
04	Zer dira LAGak? informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina									
<b>2. FASEA: KONTSULTA</b>										
05	Oinarrizko Dokumentuko eragileei kontsultatzea									
06	Prozesuaren web-orria eta nortasun digitala sortzea									
07	Parte-hartze digitala irekitzea									
08	Prozesua irekitzea									
09	Promozioa: komunikazio-kanpaina prentsan									
<b>3. FASEA: PARTE-HARTZEA</b>										
10	Herritarren postontzi eta panelak									
11	"Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak Eremu Funtzionaletan" parte hartzeko jardunaldiak									
12	Erakundeek eta gizarteak parte hartzeko bilerak									
13	Aurkezpen publikoak Lurralde Historikoetan									
14	Mahai teknikoak									
15	Sareetako informazioa jasotzea eta prozesatzea									
16	Azken Egiaztatze-saioa									
<b>4. FASEA: AMAIERA</b>										
17	Azken egiaztatzea erakundeek eta gizarteak parte hartzeko espazioarekin									
18	Parte-hartzearen ekarpenen Azken Dokumentua garatzea									
19	Lurraldearen Eguna EUSKAL HIRIA 2016 kongresuan									
20	Dibulgazio-espazio ibiltaria									
21	Bertako informazio-kanpaina									

## 4. EKINTZAK

Hemen proposatzen dugun metodologia eta egitura orokorra elkarrekin lotuta dauden ekintza-multzo batekin gauzatzen dira eta ekintza horiek, oro har, EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenean parte hartzeko prozesua osatzen dute.

Ekintza bakoitzarekin ondorengo honi buruzko informazioa zehazten da: ekintzaren helburuak, garapenaren deskribapena eta esparru metodologikoaren definizioa (kanalak, maila, gaiak, eragileak, kokapena eta tenporalizazioa). Ekintza bakoitzarekin batera, betetze-maila neurtzeko aukera ematen duten **adierazleak** zein diren adieraziko da.

Ekintzen Eranskin modura, erakundeen eta gizartearen parte-hartzea zer diren adierazten da hemen.

### Erakundeen parte-hartzea

Erakundeen parte-hartzea honako hauen bidez sustatzen ari da:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea (EAELAB) eta EAEko Lurralde Politikarako Aholku Batzordea. Organo horietako bakoitzean Lantalde Tekniko bat sortu da eta bertan, Eusko Jaurlaritzako zenbait sailek, hiru foru-aldundiek, Eudel Euskadiko Udalen Elkarateak, Estatuko Gobernuaren ordezkariak eta lurralde-gaien adituek hartzen dute parte.
- Kide anitzeko kontsulta-organoak, besteak beste: Ingurumen Saileko Ingurumen Batzordea, Ingurumenerako Batzorde Aholku-emailea, Naturzaintza, Urdaibaigo Patronatua eta Euskadiko Garraio Agintaritza.
- Legebiltzarreko Ingurumenaren eta Lurralde Politikaren Batzordea
- Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea (EGAB)
- UPV/EHUko Kultur Paisaia, Lurraldea eta Ondarea izeneko Unesco Katedra eta UPV/EHUko ehuGune, unibertsitatearen eta gizarte zibilaren arteko eztabaida-gunea.

Erakundeen parte hartzeko prozesua abian da eta dagoeneko egin dira zenbait bilera Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen (EAELAB) eta EAEko Lurralde Politikarako Aholku Batzordearen Lantalde Teknikoarekin. Halaber, zerrendatutako erakundeak harremanetan jarri dira.

### Gizartearen parte-hartzea

21 ekintzen bitartez gauzatuko den parte hartzeko prozesuak, oro har, gizarte-eragileen parte-hartzea aurreikusten du, gorago azaldutako eta 1., 12. eta 17. ekintzetan islatzen den erakundeen parte-hartzearekin egindakoa salbu.

# 1. Fasea: Prestakuntza

**Iraupena: 4 aste**

## Helburuak:

Parte hartzeko prozesuaren lehenengo fase honen helburua da prozesua arrakastaz has dadin beharrezkoak diren dokumentuak sortzea eta plangintza egitea. Horrek esan nahi du:

- Prozesua garatuko den esparru orokorra definitzea (helburuak, mugak eta prozesuan jasotako ekarpenak txertatzeko sistema).
- Parte hartzeko Gidaren zirriborroan ezarritakoaren arabera, komunikazio-lanak, eragileen arteko koordinazioa eta ekintzak abian jartzeko beharrezkoak diren baliabideak planifikatzea.
- Identifikatutako eragileekin eta EAEko gizartearekin oro har prozesua abian jartzeko testuinguru aproposa eta mesedegarria sortzen duten lan eta ekintza pedagogikoak aurrera eramatea.

Fase honek barne-garapena izango du funtsean. Bertan, Aholku Taldeak eta Zuzendaritza Teknikoak prozesua prestatzeko lanak egingo dituzte honako hauek finkatzeko:

- Parte hartzeko ekintzak zehatz-mehatz zertan datzaten.
- Parte hartzen duten eragile-taldeek egitura eta funtzioak zein diren.
- Mezua helaraztea edo Komunikazio Plana, eta proiektuaren irudia eratzea.

## Entregatzekoak, 1. Fasearen dokumentazioa

- **Parte hartzeko Plana.** Egitura metodologiko orokorra zein izango den ezarriko du eta dokumentuan deskribatutako ekintzak zehatz-mehatz azalduko ditu, besteak beste, tenporalizazioa eta egutegia eta ekintza bakoitzean parte hartuko duten eragileak; orobat, prozesu guztiaren kudeaketa-, bilketa- eta ikuskapen-sistemak zein diren azalduko du.
- **Eragileen mapa.** Parte-hartzearen 3. Fasearen aurretik galdeketa egingo zaien entitateak, izan erakundeak edo gizarte-eragileak, zein diren erakusten duen Taula proposatzen da.
- **Parte hartzeko Gidaren eranskina.** Oinarrizko Dokumentutik abiatuta, Parte hartzeko Gida prestatuko da eta testu hori parte hartzea martxan jartzeko abiapuntua izango da. Testua ulerterraza izango da eta, prozesuak aurrera egin ahala, aldatuz joango da.
- **Komunikazio Plana** Herritarrenganaino oro har eta kolektibo zehatzenganaino iristeko ahalik eta zabalkunderik handiena bermatzeko asmoz, zer lan egin behar diren, komunikatu beharreko prozesuaren mugariak zein diren, kanalak, protokoloak, mezuak eta estrategiak identifikatuko dira.

- **Webgunea eta Bloga.** Hurrengo fasearen eginkizunak bizkortzeko helburuaz, webgunea eta blog edo bitakora bat egitea proposatuko da. Zer egitura eta zer atal izango dituzten, bertako edukiak eta eguneraketa-egutegia zein izango diren ere zehaztuko da.
- **Dibulgaziozko materialak.** Hurrengo asteetan egingo den sentsibilizaziorako beharrezkoa den dokumentazioa prestatuko da fase honetan
  - + Parte hartzeko prozesurako irudia (logorik sortu gabe). Erreduzko afixa eta dokumentua.
  - + “Zer dira LAGak” izeneko dibulgaziozko bideoa, afixa eta liburuxka.
- **Jarduera-memoria.** Prestakuntzako fase honetan oraindik ere ekintza ugari gauzatu gabe egongo badira ere, hasiera-hasieratik dokumentu hau sortzea proposatzen da. Unera arte egindako guztiaren memoria izango da eta fase bakoitzaren amaieran eguneratu eta zabaldu egingo da.

## 01. Erakundeek parte hartzeko espazioak eratzea

**Helburua:** Konfiantzazko lan teknikorako espazioak sortzea, Zuzendaritza Teknikoak eta Aholku Taldeak prozesuaren faseetan lortutako emaitza partzialen lehenengo datuak eta balorazioa jaso ahal izan ditzaten.

**Deskribapena:** Prozesuak duen garrantzia ikusita eta politikan zein gizartean duen eragina ikusita, dagoeneko egon badauden bideak baliatzea proposatzen da, konfiantzazko teknikari eta profesional taldeak sortu eta prozesuaren hainbat unetan lehenengo balorazioa eman dezaten. Esate baterako:

- Oinarrizko Dokumentuaren zirriborroa
- Parte hartzeko Gida
- Parte hartzeko prozesuaren ondorioak
- Amaierako Dokumentuaren zirriborroa

Zuzendaritza Teknikoarekin egiten diren lehenengo bileren helburua espazio horien eginkizunak zein diren zehaztea ere izango da eta horretarako, aldian-aldian haiekin bilerak egingo dituzte.

Organoak EAEko Lurralde Politikarako Aholku Batzordea eta EAELABen Lantalde Teknikoa izatea erabaki da, Sailaren gainerako kontrol-erakundeekin batera. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Talde Teknikoa hasi da dagoeneko bi hilean behin bilerak egiten Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenari buruzko gai guztiak ebaluatzeko.

**Kanalak:**  
Gobernantza

**Maila:**  
EAE

**Gaiak:**  
Orokorra

**Kokapena:**  
Eusko Jaurlaritzaren egoitza

**Tenporalizazioa:**  
1. HILA

**Eragileak:**  
Eusko Jaurlaritza,  
Lurralde Politikarako Aholku Batzordea  
EAELABen Lantalde Teknikoa

### **Adierazleak:**

- > Fase bakoitzean erakundeek parte-hartzea osatzen duten bi organoekin bilera bat izatea: Lurralde Politikarako Aholku Batzordea eta EAELABen Lantalde Teknikoa.
- > Haien proposamenak Oinarrizko Dokumentuan txertatzea.



## 02. Prozesuaren aurretiko informazioa garatzea

**Helburua:** Garatuko den prozesua definitzen duen dokumentu mamitsu bat (Parte hartzeko Gida) eskuragarri izatea, lehenengo fase honetan, Zuzendaritza Teknikoarekin batera eta, ondorengo fasean, zenbait eragile-talderekin batera balioztatzeko eta egokitzeko. Halaber, hauxe izango da prozesu osorako Parte hartzeko Plana berresteko eta definitzeko unea.

**Deskribapena:** Egin beharreko lehenengo eginkizuna dokumentu honetan garatutako proposamena balioztatzea eta doitzea da eta horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Aholku Taldeak eta Zuzendaritza Teknikoak zenbait bilera egingo dituzte. Bilera hauetan, aholku-taldeak Oinarrizko Dokumentuari eta beste barne-dokumentu batzuei buruzko informazioa bildu ahal izango du gainera. Egokitze eta definizio zehatz honen **emaitza Parte hartzeko Gidaren zirriborroa** eta behin betiko Parte hartzeko Plana izango dira.

Dokumentu hori prestatzea izanik jomuga, lan-saioak honako hauek lortzera zuzenduta egongo dira:

- **Erabiliko den metodologia eta Parte hartzeko prozesuaren xede izango den egitura tematikoa egokitzea.**
- **Gauzatuko diren parte hartzeko ekintzen programa zehatz-mehatz definitzea.** Ekintzen programak ekintza bakoitzean eragile parte-hartzaileak zein diren adieraziko du eta orobat, non eta noiz egingo diren.
- Prozesuan jasoko den **informazioa biltzeko eta prozesatzeko zer sistema erabiliko den erabakitzea** eta informazioaren trazabilitate-sistema nolakoa izango den ezartzea.

Parte hartzeko Gidaren zirriborroa Berrikuspenaren edukietarako abiapuntua izango da.

**Kanalak:**

Dokumentazioa

**Maila:**

EAE

**Gaiak:**

Orokorra

**Kokapena:**

Eusko Jaurlaritzaren egoitza

**Temporalizazioa:**

1. HILA

**Eragileak:**

Eusko Jaurlaritza

**Adierazleak:**

> Parte hartzeko Plan osoa aurkeztea, ele bietan, adostua eta ongi zehaztutako ekintzak dituen eta egutegia, metodologia eta adierazleak adierazten dituen.

> Parte hartzeko Gidaren zirriborroa aurkeztea, ele bietan, modu ulerterrazean idatzia, adostua eta parte hartzeko abiapuntua izango dena.

> Eragileen Mapa osoa sortzea.

> Komunikazio Plana, dibulgaziozko materialak eta irudi digitala prestatzea.

## 03. Prozesuaren irudia sortzea

**Helburua:** Proiektu guztirako irudi koherentea sortzea, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesuaren eta hasten den parte hartzeko prozesuaren balioak adierazten dituen.

**Deskribapena:** Irudiak zer irismen izango duen ezarriko da Zuzendaritza Teknikoarekin batera; izan ere, irudia parte hartzeko prozesuan soilik erabil daiteke edo, bestela, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesu osoan erabili ahal izango da.

Prozesuan gauzatuko diren komunikazio eta ekintza guztietan ideia bateratua eta ezaguterraza adierazi behar du irudiak. Irudiak ez du zertan logoa izan, ikonografia asko baitago; horren ondorioz, parte-hartzaileentzat gehiegizkoa izan daiteke. Aitzitik, dokumentu guztien artean koherentzia egon dadin ahalegindu behar dugu; beraz, Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren irudi korporatiboa hartu behar da oinarri.

Horixe izango da komunikazio publiko guztietan erabiliko den irudia, besteak beste, informazio- eta dibulgazio-kanpainak garatzeko baliatuko diren web-orrian, liburuxketan, material grafikoetan eta bideoetan. Irudi horixe erabiliko da, orobat, parte hartzeko egingo diren hainbat jardueratan.

**Kanalak:**  
Zabalkundea

**Maila:**  
EAE

**Gaiak:**  
Orokorra

**Kokapena:**  
--

**Tenporalizazioa:**  
1. HILA

**Eragileak:**  
Eusko Jaurlaritza

**Adierazleak:**

- > Zuzendaritza Teknikoarekin adostutako ereduako irudi bertikala diseinatzea.
- > Irudia kartel bertikaletara zein horizontaletara eta web-orrira zein liburuxketara egokitzea.
- > Irudia prozesuaren web-orrira eta blogera egokitzea.

## 04. Zer dira LAGak? izeneko informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina

**Helburua:** Herritarrei EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen eta EAEko Lurraldearen balioen berri ematea eta horien inguruan sentsibilizatzea.

**Deskribapena:** Fase honetako azken lana komunikabide tradizionaletan eta digitaletan komunikazio-kanpaina bat egitea izango da. Kanpainaren helburua da adituak ez diren herritarrei lurralde-antolamenduaren balioak eta, zehatzago, EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen balioak ezagutaraztea.

Nori zuzenduta doan kontuan hartuta, kanpainak hizkuntza ulerterraza erabiliko du eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak EAEko lurralderako zeinen mesedegarriak izan diren nabarmenduko du. Era berean, nazioartean erreferentzia direla eta hasiko den parte hartzeko prozesuan oso garrantzitsuak direla nabarmenduko du.

Dibulgaziozko laburpen hori komunikabideetan zabaltzeko erabiliko da. Horrez gain, honako beste hauek sortuko dira:

- **Dibulgaziozko liburuxka.** Liburuxka Eusko Jaurlaritzaren sareetan argitaratuko da eta, Zuzendaritza Teknikoak ontzat ematen badu, maila txikiagoko administrazioetan (foru- eta udal administrazioetan) banatuko da.
- **EAEko lurraldearen irudiak erakutsiz, EAEko lurraldearen balioak ezagutarazten dituen eta LAGen kontzeptua eta garrantzia azaltzen dituen bideoa.**
- **Tokiko zabalkunderako materialak:** ereduzko artikulua bat eta ohiko galderak jasotzen dituen dokumentu bat idatziko dira eta tokiko esparruan banatuko dira.

**Kanalak:**  
Zabalkundera  
Herritarrek

**Maila:**  
Guztiak

**Gaiak:**  
Orokorra

**Kokapena:**  
--

**Tenporalizazioa:**  
2. HILA

**Eragileak:**  
Gizarte Zibila

**Adierazleak:**

- > Dibulgaziozko liburuxka eta materiala sortzea, hizkuntza xaloa darabilena eta Zuzendaritza Teknikoarekin adostuta dagoena.
- > Zuzendaritza Teknikoarekin adostutako dibulgaziozko bideoa.
- > Sentsibilizazio-kanpaina herritarrengana 6 kanal baino gehiagoren bitartez iristea.

## 2. Fasea: Galdeketa

**Iraupena: 4 aste**

### Helburuak:

Geroago, prozesuaren planteamendutik bertatik parte hartuko duten eragileen konpromisoa lortzeko bidea ematen du fase honek, haien ekarpenei eta iradokizunei tokia emanez.

### Entregatzekoak, 2. Fasearen dokumentazioa

- **Parte hartzeko Gida.** Galdeketa-fasearen emaitza nagusia behin betiko Parte hartzeko Gida hau izango da eta Eragileei egindako Galdeketen bidez eta Kanpo Foroaren batzarraren bidez baliozkotuko da. Funtsean, dokumentu hau hurrengo fasearen abiapuntua izango da.
- **Bildutako informazioaren erregistroa.** 2. eta 3. Faseen amaieran eguneratuko den beste dokumentuetako bat da. 5.2 atalean azaltzen dugunez, ez da eragileen iritzia eta proposamenak jasotzen dituen datu-base soil bat. Izan ere, erregistro-sistema honek eta honekin batera doazen bistaratzeek prozesuaren orain arteko ondorio partzialen laburpen gisa funtzionatuko dute.

Prozesuaren gardentasuna eta bildutako iritzien eta horietan oinarrituta hartutako erabakien trazabilitatea bermatzeko mekanismoa da. Sistemaren bistaratzeak blogean argitaratuko dira aldian-aldian eta hartara, parte-hartzaileek edo interesa duen edozein pertsonak prozesua zer egoeratan dagoen eta orain arteko emaitzak zein diren ezagutu ahal izango du.

- **Jarduera-memoria.** Fase honetan egindako jarduerekin eguneratua: Eragileei egindako Galdeketen batzarrak, Kanpo Foroaren Batzarra, Irekieraren aurkezpena, Prentsa-kanpaina eta egindako lanen txostena.

## 05. Eragileei egindako Galdeketak

**Helburua:** Parte hartzeko Gidaren laguntzaz, ekarpenak eta iritziak jaso eta Oinarrizko Dokumentuan txertatzea.

**Deskribapena:** Atal hau prozesuaren fase honetako zeregin nagusia da, **identifikatutako eragileak prozesuaren parte sentiaraziko dituelako** eta, orobat, ohartaraziko die prozesua formatu jakin batean eta onartutako gai eta muga argi batzuekin gauzatuko dela. Gizarte-eragileei, eragile teknikoei eta ekonomikoei deitu eta ekarpenak egiteko eta iritzia emateko eskatuko zaie. Adoste-lanerako, **zenbait taldekako bilera antolatuko dira** horiek guztiak helburu berberarekin:

- **Parte hartzeko Plana** eta bertako edukiak aurkeztea: planteamendu metodologikoa, egitura tematikoa, trazabilitaterako eta gardentasunerako sistema eta ekintzen egutegia.
- **Bertaratutako pertsonak eta ordezkatzeko dituzten erakundeak Oinarrizko Dokumentuaren** eta LAG berrien inguruan aurkeztutako ikuspegiak emandako **balorazioak jasotzea**

Bilera horiek emandako emaitzetan oinarrituta, **eragileen ekarpenak bateratuko dira** eta, Zuzendaritza Teknikoaren bitartez, Oinarrizko Dokumentuan txertatzeko erabiliko dira.

<b>Kanalka:</b> Parte-hartzea	<b>Maila:</b> EAE	<b>Gaiak:</b> Sektorialak eta Zeharkakoak
<b>Kokapena:</b> Eusko Jaurlaritzak lurralde historiko bakoitzean dituen egoitzak	<b>Tenporalizazioa:</b> 2. HILA	<b>Eragileak:</b> Akademia, Administrazioa, eragile ekonomikoak eta gizarte-eragileak

### Adierazleak:

- > Gutxienez ere Irekian, Twitterren y Facebooken iritziak jasotzeko aukera zabaltzea.
- > Gutxienez ere 5 interakzio egitea fase honetan abiarazitako sare digital bakoitzean.

## 06. Bloga eta web-orria eta Prozesuaren identitate digitala sortzea

**Helburua:** Prozesuari jarraipena egin ahal izateko eta haren gardentasuna eta irekitasuna bermatzeko gune digitala eratzea. Gune bikoitz hori, web-orria eta bloga, Irekia gunean (Bloga) eta Eusko Jaurlaritzaren beraren webgunearen azpidomeinuan (web-orria) egongo da kokatuta.

**Deskribapena:** Prozesua abiarazi eta ireki aurretik, jarraipena egin ahal izateko beharrezko azpiegitura digitala eraikiko da:

- **Bloga:** Informazioa helarazteko eta jasotzeko etenik gabeko bitakora; prozesuaren egunerokoa izango da eta bertan, web-orria irauli aurretik, informazio gordin guztia azalduko da. Gorago esan dugunez, Irekia plataforma baliatuko da horretarako.
- **Web-orria:** Eusko Jaurlaritzaren Sailaren web-orriaren baitako gune digitala. Bertan jarriko dira prozesuaren behin betiko edukiak.

Web-orriko eduki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko dira, mezua modu ez baztertzailan helarazi dela bermatzeko (5.1 atala).

Prozesuaren web-orriaren eta sare sozialen kudeaketa 1. Fasearen amaieran egindako Komunikazio-planean oinarrituko da. Komunikatu beharreko mugarri nagusiak zein diren ezartzeaz gain, komunikaziorako kanalak koordinatzeko protokoloa ere zehaztuko du.

**Kanalak:**

**Zabalkundea**

**Maila:**

EAE

**Gaiak:**

Sektorialak eta Zeharkakoak

**Kokapena:**

--

**Tenporalizazioa:**

2. HILA

**Eragileak:**

Akademia, Administrazioa, Eragile ekonomikoak, Gizarte-eragileak eta eragile kulturalak.

**Adierazleak:**

> 2. Fasea amaitu baino lehen, Irekia webgunearen baitan adostutako bloga sortzea.

> 2. Fasea amaitu baino lehen, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean prozesuari dagokion atala eratzea.

## 07. Parte-hartze digitalaren irekiera

**Helburua:** Herritarrek prozesuan duten parte-hartzea zabaltzea eta horretarako, tresna digitalak eta IKTak (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak) baliatzea

**Deskribapena:** Internet eta sare sozial digitalen bitartez herritarren ekarpenak jasotzeko eta erregistratzeko aukera ematen duen parte-hartze digitalerako estrategia garatuko da. Parte-hartze digitalerako ondorengo kanal hauek erabiliko dira:

- **WEB-ORRIA:** Prozesuaren web-orrian parte-hartze digitalerako zenbait mekanismo inplementatuko dira, hala nola, galdeketak, inprimakiak eta gaikako lehenespena.
- **Twitter:** Hainbat elkarrizketa-etiketa (hashtag) sortuko dira eta etiketa horiek dituzten txioak bilduko dira. Aipatutako tresnen bidez lortutako informazioa parte hartzeko prozesuan sailkatuko eta txertatuko da. **Facebook:** sarrerei edo argazkiei eginiko iruzkinen bitartez informazioa eta iritziak biltzea.

Prozesu honen amaieran online eginiko ekarpenen eta estatistiken txostena idatziko da eta dokumentu horrek prozesuak izandako parte-hartze digitalari buruz bildutako informazio hautatua jasoko du labor-labor. Idatzizko testuaz gain, dokumentuak estatistikak ere izango ditu, bildutako informazioa ulerterrazagoa izan dadin. Hala, edukiak hautatu eta labor-labor aurkeztuko dira, horietatik guztietatik berrikuspenaren prozesuan txertatuko diren gakorik garrantzitsuenak edo interesgarrienak lortzeko. Informazio hori guztia parte hartzeko prozesuan erabiliko da.

<b>Kanalak:</b> Parte-hartzea	<b>Maila:</b> Lurralde-maila	<b>Gaiak:</b> Sektorialak eta Zeharkakoak
<b>Kokapena:</b> --	<b>Tenporalizazioa:</b> 2.-5. HILA	<b>Eragileak:</b> Guztiak

**Adierazleak:**

- > Gutxienez ere Irekian, Twitterren y Facebooken iritziak jasotzeko aukera zabaltzea.
- > Gutxienez ere 5 interakzio egitea fase honetan abiarazitako sare digital bakoitzean.

## 08. Hasiera: prozesuaren hasieraren aurkezpena

**Helburua:** Hurrengo fasean garatuko den erabaki eta parte-hartze irekiaren prozesua ezagutaraztea eta haren helburuen, egituraren eta faseen berri ematea.

**Deskribapena:** Parte hartzeko prozesuari hasiera emateko jardunaldi bat egitea proposatzen da. Hona hemen programa:

- Eusko Jaurlaritzaren arduradun politikoek emandako prentsaurrekoa. Bertan, gizarteak parte hartzeko prozesuari formalki hasiera ematen zaiola jakinaraziko dute eta prozesuaren helburuen berri emango dute.

Helburua oihartzun mediatikoa sortzea izanik, jardunaldia politikari teknikoei zuzendua dago. Hala ere, herritarrentzako irekia ere izango da.

Hala, ekitaldiaren aurretik eta ondotik prentsa-oharrak igorriko dira edukiaren eta aurkezpenaren nondik norakoen berri emanez. Horrez gain, komunikazioa proiektuaren sare sozialen bidez ere egingo da.

**Kanalak:**

Zabalkundea  
Parte-hartzea

**Maila:**

EAE

**Gaiak:**

Sektorialak eta Zeharkakoak

**Kokapena:**

Erakundeen hitzaldi-aretoa (esate baterako, Eusko Jaurlaritzak Vitoria-Gasteizen duen egoitza)

**Tenporalizazioa:**

2. HILA

**Eragileak:**

Akademia, Administrazioa, Eragile ekonomikoak, Gizarte-eragileak, Eragile kulturalak, Alderdi Politikoak

**Adierazleak:**

- > Prentsaurrekora gutxienez ere 4 komunikabide bertaratzea lortzea.
- > Gutxienez ere 4 komunikabidetan prentsaurrekoari buruzko argitalpena azaltzea.



## 09. Hasiera: komunikazio-kanpaina prentsan

**Helburua:** Hurrengo fasean garatuko den erabaki eta parte-hartze irekiaren prozesua ezagutaraztea eta haren helburuen, egituraren eta faseen berri ematea.

**Deskribapena:** Ekintza honek erlazio zuzena du aurrekoarekin eta helburu bera dute. Kasu honetan, komunikabide tradizionaletan eta proiektuaren sare sozialetan eta baita EAEko lurraldeko beste komunikabide digitaletan egingo den komunikazio-kanpaina da.

Kanal horien bitartez **Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Parte hartzeko prozesua hasi dela jakinaraziko da** eta honako hauek nabarmenduko dira:

- Helburuak
- Proiektuaren faseak
- Parte-hartzea izango duten eta eztabaidagai izango diren gaiak, mugak eta oinarriak.
- Informazioa lortzeko edo parte hartzeko edonork erabili ahal izango dituen kanalak eta bitartekoak.

1. Faseko sentsibilizazio-kanpainaren xedea Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak zer diren jakinarazteko lan pedagogikoa egitea zen; kanpaina honek, ordea, parte hartzeko prozesuak eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspenak nola funtzionatzen duten azaltzen du zehatzago.

Helburu horrekin, prentsa-oharrak eta artikuluak bidaliko dira hainbat komunikabidetara.

**Kanalak:**

Zabalkundea

**Maila:**

EAE

**Gaiak:**

Sektorialak eta Zeharkakoak

**Kokapena:**

--

**Tenporalizazioa:**

2.-3. HILA

**Eragileak:**

Gizarte Zibila

**Adierazleak:**

- > Prentsa-oharra gutxienez ere 2 agentzia eta 3 komunikabidetara helaraztea.
- > Gutxienez ere 4 komunikabidetan prentsa-oharrari buruzko argitalpena azaltzea.

## 3. Fasea: Parte-hartzea

**Iraupena: 10 aste (eta tartean 7-8 asteko udako atsedenaldia)**

**Helburuak:**

Lanaren fase hauxe da parte hartzeko prozesuaren ardatz nagusia. Aurreko faseetan egindako lan guztiek, funtsean, bermatu nahi zuten EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenaren hobekuntza-proposamenak adosteko prozesua –fase honetan egingo dena- honelakoa izango zela:

- **Edozein izanik ere parte-hartzen duen maila (informazioa, galdeketa, ebaluazioa eta adostea), parte hartu nahi duen EAEko lurraldeko edozein eragile edo pertsonari irekia egotea.**
- **Prozesu osoan eragileek emango dituzten iritzi eta balorazioak biltzeko eta kudeatzeko sistema gardena izatea.**
- **Izango duen egitura metodologikoari (gaiak, mugak eta egin litezkeen hobekuntzak) eta gauzatuko diren ekintzei dagokienez, adostutako prozesua izatea.**
- **Aniztasunari, sentsibilitateei eta EAEko gizartearen kodeei dagokienez, inklusiboa izatea.**
- **Eraginkorra** izatea eta beraz, berrikuspen-prozesuan txerta daitezkeen proposamenak egiteko gai izatea.
- **Berritzailea** izatea eta beraz, EAE Eremu, arlo eta eragileen arteko lankidetzan oinarritutako lurraldeko kultura berri batean kokatzeko gai izatea.

Printzipio hauetatik abiatuta, fase honek Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak Berrikusteko Prozesuan aintzat hartuko diren parte hartzeko proposamenak jasotzea du helburu. Horretarako beharrezkoa da:

- **Parte hartzeko eta iritziak jasotzeko zenbait ekintza gauzatzea.**
- **Parte hartzeko eta informazioa emateko prozesua hainbat mailatan koordinatzea:** Tokikoa, Eremu Funtzionala, Lurralde Historikoa eta EAE.
- **EAEko lurralde osoan maila bakoitzak zer funtzio duen hausnartzea sustatuko duten jarduera pedagogikoak egitea.**
- **Komunikatzeko eta parte hartzeko kanalak sortzea, identifikatutako eragileek parte har dezaten.**
- **Jarraipena egitea** erakundeen eta gizartearen parte-hartze espazioen bitartez.

Helburu horrekin, fase honetan hainbat mailatako eragileei eta herritarrei zuzendutako zenbait ekintza egitea proposatzen da.

**Prozesuaren koherentzia eta erabakien trazabilitatea gordetzearren**, fasea tokiko mailan hasiko da eta maila handiagotuz joango da geroagoko ekintzetan: Eremu Funtzionala, Lurralde Historikoa eta azkenean, EAE osoa.

Fase hau oso zabala da eta hori dela-eta, **bitan banatu da: Tokikoa-Eremu Funtzionala eta Lurralde Historikoa-EAE.**

### Entregatzekoak, 3. Fasearen dokumentazioa

- **Parte hartzeko Gida.** Fase honen ostean, Parte hartzeko Gidaren edukia zabaldu eta egokitu egingo da. Ondorioz, **parte-hartzaileen ekarpenen dokumentua** eratuko da eta hurrengo fasean berrikusiko da, hau da, ondorioen fasean (4. Fasea).
- **Bildutako informazioaren erregistroa.** Parte hartzeko fasearen amaieran, bildutako informazioaren erregistroaren dokumentua honako emaitza hauekin osatuko da: Postontzi fisiko eta digitalak, Jarduera pedagogikoak, Eremu Funtzionaletan antolatutako Parte hartzeko Jardunaldiak, Jendaurreko aurkezpenak, Lurralde Historikoetan antolatutako Mahai-inguruak, Sareetako informazioa biltzea eta prozesatzea eta Iritziak erkatzeko Azken Saioa.

Jarduera bakoitzerako, honako hau entregatuko da: Jarduera bakoitzaren emaitzen matrizea, parte-hartzaileen ezaugarriak.

- **Dibulgaziozko materiala.** Garatutako dibulgaziozko materialaren txostena osatuko da.
- **Jarduera-memoria.** Fase honetan egindako jarduerekin eguneratua: postontzi fisiko eta digitalak, ekintza pedagogikoak, LAGetan parte hartzeko jardunaldiak, erakundeek eta gizarteak parte hartzeko bilerak, jendaurreko aurkezpenak, gaikako mahaiak, iritziak erkatzeko saioa eta parte-hartze digitala.

## 10. Herritarrentzako panelak

**Helburua:** Parte-hartzearen esparruaren berri ematea eta antolatu gabeko gizarte zibilaren iritziak eta proposamenak jasotzea.

**Deskribapena:** Fase honetako lehenengo ekintza herritarren iritziak jasotzeko tokian tokirako sistema bat sortzea izango da. Parte hartzeko Gidan ezarritako egitura tematikoan oinarrituta, informazioa biltzeko sistemak garatuko dira bi formatutan:

- **Parte-hartze digitalerako espazioa:** web-orrian iritziak jasotzeko inprimaki bat prestatuko da egitura tematiko bera jarraituz. Inprimakiei zabalkundea emateko sare sozialak erabiliko dira.
- Horrekin batera, sareen erabiltzaileei zuzenean erantzuteko aukera izango duten zenbait galdera egingo zaizkie eta hartara, bildutako informazioa zabaldu ahal izango dugu. Galderak dagokion gaiari buruzkoak izango dira, dokumentazio-sisteman txertatu ahal izan daitezen.

Bai panel fisikoak bai inprimakiak **Eremu Funtzionalen arabera egokituko dira** eta horretarako, berriazko informazioa eta galderak izango dituzte. Hala, lurralde-antolamendua tokiko eremura hurbiltzen dugu; eremu funtzionaletako herritarrentzako hurbilekoagoa bihurtzen dugu eta herritarrek lurralde-antolamenduan parte hartzea lortzen dugu. Ekintza hau Udalsarearekin eta beste tokiko eragileen sare batzuekin batera koordinatuta egongo da.

<b>Kanalak:</b> Zabalkundea Parte-hartzea	<b>Maila:</b> EAE	<b>Gaiak:</b> Sektorialak eta Zeharkakoak
---	----------------------	--

<b>Kokapena:</b> Eremu Funtzionaletako gunen nagusietako ekipamenduak (5.3 atala)	<b>Tenporalizazioa:</b> 3. HILA	<b>Eragileak:</b> Gizarte Zibila
--	------------------------------------	-------------------------------------

**Adierazleak:**

- > Irekia web-gunean iritziak jasotzeko online inprimaki bat sortzea.
- > Udalsarearen bitartez zabalduko den kita sortzea.

## 11. “LAGak Eremu Funtzionalak” izeneko parte hartzeko Jardunaldiak

**Helburua:** Eremu Funtzionalaren ikuspuntutik, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen alderdi nagusiei buruzko ikuspegi orokorra izatea.

**Deskribapena:** Eremu Funtzional bakoitzean, parte hartzeko jardunaldiak egingo dira. Jardunaldietan, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspeneren gaitan sakonduko da eta horretarako, Eremu Funtzional bakoitzeko udalerrietan bildutako informazioa hartuko da kontuan. Jardunaldiak arratsalde batez egingo dira eta bertan, parte hartzeko zenbait dinamika erabiliko dira. Helburua da mota guztietako eragileek parte hartuko duten Eremu Funtzional bakoitzak LAGei buruz duen ikuspegiari buruzko ondorioak ateratzea.

- **Hasierako informazioa eta saioa testuinguruan kokatzea (15’)**
- Xedea da saioa zer testuingurutan kokatzen den, zenbaterainoko garrantzia duen eta zer helburu zehatz lortu nahi dituen adieraztea. Halaber, delako Eremu Funtzionalaren baitako udalerrietan parte hartzeko fasean lortutako emaitzak zein diren aurkeztuko da labur-labur.
- **Saioaren azalpen metodologikoa (10’)**
- Asmoa da saioaren baitan garatuko diren dinamiken berri ematea eta praktikan jartzeko argibideak ematea. Azalpena laguntzaile tekniko batek emango du.
- **Parte hartzeko dinamika (1h30’)**
- Taldeko dinamizatzaileek proposatutako zenbait gaiari buruz eragileek emandako ideiak trukitzea da helburua. Dinamika arina izango da eta hartara, bertaratutako pertsona guztiek taldean iritzia emateko aukera izango dute. **Nork bere Eremu Funtzionalerako LAGen gairik garrantzitsuenak zein diren eta zergatik pentsatuko du.** Iritzi-trukea abiarazteko, **berriazko zenbait galdera egingo dira, galdera bat mahai bakoitzean.** Galderak Eremu Funtzional horrekin lotutako LAGen alderdi jakin batzuei buruzkoak izango dira

**Kanakak:**

Parte-hartzea

**Maila:**

Eremu Funtzionala

**Gaiak:**

Sektorialak eta Zeharkakoak

**Kokapena:**

Eremu Funtzionalakotako gunen nagusietako ekipamenduak (ikus 5.3 atala)

**Tenporalizazioa:**

3.-4. HILA

**Eragileak:**

**Guztiak**

**Adierazleak:**

- > Jardunaldiak gutxienez ere 15 Eremu Funtzionalak estaliko dituzten 18 kokalekutan egitea.
- > Kokaleku bakoitzera batez beste gutxienez ere 20 pertsona bertaratzea.
- > Bertaratutako emakumeen edo gizonen kopurua % 30 baino txikiagoa ez izatea.

## 12. Erakundeek eta gizarteak parte hartzeko bilerak

**Helburua:** Tokian tokiko eremuan prozesuaren eta lortutako emaitzen jarraipena egitea.

**Deskribapena:** Eremu Funtzionaletan egindako parte hartzeko ekintzen (tailer eta ekintza pedagogikoak) ondoren, bigarren bilera-txanda bat egitea proposatzen dugu, erakundeen parte-hartzearekin lehenengo eta gizarteak parte hartzeko espazioekin ondoren.

Bilerek tokiko eremuan eta Eremu Funtzionaletan egin den lanaren lehen balorazioa egin ahal izateko balioko dute eta lagungarriak izango dira Lurralde Historikoetako Parte hartzeko prozesua prestatzeko.

Eremu Funtzionaletan egindako ekintzen emaitzak bilera horietan aurkeztuko dira eta espazioek haiei buruzko balorazioa egingo dute.

**Kanalak:**  
Gobernantza

**Maila:**  
EAE

**Gaiak:**  
Sektorialak eta Zeharkakoak

**Kokapena:**  
Eusko Jaurlaritzak Vitoria-Gasteizen duen egoitza

**Tenporalizazioa:**  
5. HILA

**Eragileak:**  
Eusko Jaurlaritza, Kanpo Foroa  
Lurralde Politikarako Aholku  
Batzordea  
EAELABen Lantalde Teknikoa

**Adierazleak:**

> Eremu bakoitzari gutxienez ere bilera baterako deialdia egitea fase honetan.

## 13. Lurralde Historikoetan antolatutako jendaurreko aurkezpenak

**Helburua:** Eremu Funtzionaletako parte-hartzearen emaitzen berri eta Lurralde Historikoetan egingo diren hurrengo ekintzen berri ematea.

**Deskribapena:** Eremu Funtzionaletako eta Lurralde Historikoetako Parte hartzeko prozesuen trantsizio modura eta adoste-prozesuari amaiera ematearren, lehenagoko parte hartzeko prozesuaren emaitzak aurkeztuko dira eta Lurralde Historiko bakoitzean egin beharreko parte hartzeko lana azalduko da.

Hiru Lurralde Historikoetako bakoitzean egingo diren aurkezpenek lotura zuzena izango dute “Gaikako Mahaiak” izeneko ekintzarekin. Hala, ekitaldi bakarra osatuko dute eta hartara, oihartzun handiagoa lortuko dute eta parte-hartzaileen baliabideak eta denbora eraginkorrago bihurtuko dira.

Jendaurreko aurkezpena bi ordukoa izango da eta ondoren, kafea hartzeko atsedenaldia egingo da. Gero, gaikako mahaiaren lanari ekingo diote.

<b>Kanalak:</b> Parte-hartzea	<b>Maila:</b> Lurralde-maila	<b>Gaiak:</b> Sektorialak eta Zeharkakoak
<b>Kokapena:</b> Lurralde Historikoetako biltzar-jauregiak	<b>Tenporalizazioa:</b> 7. HILA	<b>Eragileak:</b> Akademia, Administrazioa, Eragile ekonomikoak, Gizarte-eragileak eta eragile kulturalak.

**Adierazleak:**

- > 3 lurraldeetan 3 aurkezpen antolatzea eta horietara lurralde bakoitzean gutxienez ere 30 pertsona bertaratzea.
- > Eremu Funtzionaletan egindako ekarpenak behar bezala itzultzea.

## 14. Gaikako Mahaiak

**Helburua:** EAEko lurralde-plangintzaren etorkizuneko helburuak zein diren identifikatzea

**Deskribapena:** Hiru lurralde historikoetan saio bana egingo da. Saio bakoitzeko parte-hartzaileak gaikako mahaietan banatuko dira, haien espezializazio-eremuaren edota interesen arabera.

Hala, saioen zati bat mahai guztientzat berdina izango da eta beste zati batean, aldiz, taldeka lan egingo dute (gai-eremuaren arabera).

Gaikako mahaietako lanean etorkizuneko egoerak diseinatuko dira egungo errealitatetik abiatuta eta, kasu honetan, tokiko eremuko eta eremu funtzionaletako parte hartzeko prozesuaren ondotik sortutako proposamenak batuz egingo da hori.

3 saioek egitura/banaketa berbera izango dute:

- **Hasierako informazioa eta saioa testuinguruan kokatzea (30 min)**
- Xedea da saioa zer testuingurutan kokatzen den, zenbaterainoko garrantzia duen eta zer helburu zehatz lortu nahi dituen adieraztea. Halaber, tokian tokiko eta Lurralde Historikoaren delako Eremu Funtzionaleko parte hartzeko fasean lortutako emaitzak zein diren aurkeztuko da labur-labur. **Parte-hartzaileak Gaikako mahaietan banatuko dira** (laguntzaile teknikoek prest izango dute alde aurretik izen-ematean oinarritutako proposamen bat). **Saioaren azalpen metodologikoa (10 min)**  
Asmoa da saioaren baitan garatuko den dinamikaren berri ematea eta praktikan jartzeko argibideak ematea.  
Azalpena laguntzaile tekniko batek emango du.
- **Parte hartzeko dinamika (2h)**  
Parte hartzeko aurreko saioetan aurkitutako arazoaren eta erronken inguruan lanketa egitean datza. Dinamika arina izango da eta hartara, gaikako mahai bakoitzeko pertsonak, gai horrekin lotuta, etorkizunean zer egoera nahiko luketen eta zein nahiko ez luketen eta zergatik pentsatzeko eta eztabaidatzeko aukera izango dute.

**Kanalak:**

Parte-hartzea

**Maila:**

Lurralde-maila

**Gaiak:**

Sektorialak eta Zeharkakoak

**Kokapena:**

Lurralde Historikoetako  
biltzar-jauregiak

**Tenporalizazioa:**

7. HILA

**Eragileak:**

Akademia, Administrazioa, Eragile ekonomikoak,  
Gizarte-eragileak eta Eragile kulturalak

**Adierazleak:**

- > Lurralde bakoitzean batez beste gutxienez ere 30 pertsona bertaratzea.
- > Bertaratutako emakumeen edo gizonen kopurua % 30 baino gutxiago ez izatea.



## 15. Sare sozialetako informazioa biltzea eta prozesatzea

**Helburua:** Parte-hartze digitalaren prozesuan lortutako informazioa kudeatzea

**Deskribapena:** Hainbat tresnaren bidez, Eventweet adibidez, herritarrek emandako informazioa bildu eta kudeatuko da. Orobat, ekitaldi baten hashtaga duten txio guztiak bilduko dira eta hartara, denbora-lerro osoa kontsultatu ahal izango dugu hashtaga sortu denetik hasita.

Horrekin guztiarekin online eginiko ekarpenen eta estatistiken txostena entregatuko da eta dokumentu horrek prozesuak izandako parte-hartze digitalari buruz bildutako informazio hautatua jasoko du labur-labur. Idatzizko testuaz gain, dokumentuak estatistikak, grafikoak eta diagramak ere izango ditu, bildutako informazioa ulerterrazagoa izan dadin. Hala, edukiak hautatu eta labur-labur aurkeztuko dira, horietatik guztietatik berrikuspenaren prozesuan txertatuko diren gakorik garrantzitsuenak edo interesgarrienak lortzeko.

<b>Kanalak:</b> Dokumentazioa	<b>Maila:</b> Lurralde-maila	<b>Gaiak:</b> Sektorialak eta Zeharkakoak
<b>Kokapena:</b> --	<b>Tenporalizazioa:</b> 7. HILA	<b>Eragileak:</b> Guztiak

**Adierazleak:**

- > Gutxienez ere komunikabide digitaletan utzitako 100 iritzi jasotzea.
- > Iritzi digitalen matrizea sortzea.

## 16. Iritziak erkatzeko Azken Saioa

**Helburua:** Hiru lurralde historikoentzat lehentasuna duten proposamen partekatua zein diren identifikatzea

**Deskribapena:** Lurralde historiko bakoitzean azken saio bat egingo da lehentasunezko proposamenak aztertzeko. Helburua da hiru lurraldeek partekatzen dituzten proposamenak zein diren finkatzea eta, aldi berean, kontraesanetan dauden proposamenen kasuetarako alternatibak edo erdibideko jarrerak proposatzea.

Saio bakoitzeko parte-hartzaileak lan-mahai mistoetan banatuko dira; izan ere, hartara, eztabaida arindu egiten da eta iritziak erkatzeko talde bakoitzean irizpide eta esperientzia anitzak daudela bermatzen da. Mahaietan emaitza-matrizeak erabiliko dira eta gaikako proposamenak aztertuko dira Parte hartzeko Gidan zehaztutako zenbait parametreri begiratuta. Gainera, kontraesanetan dauden lehentasunak berrikusiko dira, lurralde osoaren premiekin bat etor daitezten.

Saioek honako egitura hau izango dute:

- **Hasierako informazioa eta saioa testuinguruan kokatzea (30 min)**
- Xedea da saioa zer testuingurutan kokatzen den, zenbaterainoko garrantzia duen eta zer helburu zehatz lortu nahi dituen adieraztea. Halaber, 3 Lurralde Historikoetan ospatutako Gaikako Mahaietako fasean lortutako emaitzak zein diren aurkeztuko da labur-labur. **Parte-hartzaileak mahai mistoetan banatuko dira** (laguntzaile teknikoek prest izango dute alde aurretik izen-ematean oinarritutako proposamen bat)
- **Saioaren azalpen metodologikoa (10 min)**
- **Dinamika (2h)**  
Helburua da aurreko saioetan gai bakoitzerako zerrendatutako proposamenen artean lehentasunak ezartzea eta gatazkatsuak diren proposamenentzako irtenbideak proposatzea.

**Kanalak:**

Parte-hartzea

**Maila:**

Lurralde-maila

**Gaiak:**

Sektorialak eta Zeharkakoak

**Kokapena:**

--

**Tenporalizazioa:**

7. HILA

**Eragileak:**

Akademia, Administrazioa, Eragile ekonomikoak, Gizarte-eragileak eta Eragile kulturalak.

**Adierazleak:**

- > Lurralde bakoitzean batez beste gutxienez ere 30 pertsona bertaratzea.
- > Bertaratutako emakumeen edo gizonen kopurua % 30 baino gutxiago ez izatea.
- > Gutxienez ere edukien % 50ean ados jartzea.

## 4. Fasea: Amaiera

**Iraupena: 2 hilabete**

### Deskribapena:

Proposamen honen xedea prozesuaren amaierako fasea da eta hona hemen bere helburua:

- Aurreko faseetako emaitzak antolatuko eta egituratuko dituen Azken Dokumentua prestatzea, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak Berrikusteko Prozesuan balora daitezen edota bertan txerta daitezen.
- Parte-hartzaile guztiei prozesuaren eta ateratako ondorioen eta lortutako emaitzen berri ematea modu irekian.
- Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak Berrikusteko Prozesuaren erdibideko puntua izanik, fase honen helburua da oraindik egiteke dagoen berrikuspenaren prozesuarekin batera joango diren zabalkunde- eta irekiera-aldiak prestatzea.

Fase honek, funtsean, ez du prozesua erabat ixten eta oraindik egiteke dagoen prozesurako prestakuntza da. Aurrerantzean, adostasunera heltzeko, koordinatzeko eta antolatzeko egindako ahalegin guztiak berrikuspen prozesuaren izaera irekia eta gardena mantentzeko baliatu behar dira. Egia da parte hartzeko ahalegin handienak hasierako faseetarako gorde behar direla nagusiki, eta halaxe egin da hain zuzen; haatik, ezinbestekoa da, orobat, prozesuan parte hartu duten eragileek ulertzea haien parte-hartzea eraginkorra izan dela eta emaitza zehatzak izan dituela.

### Entregatzekoak, 4. Fasearen dokumentazioa

- **Parte-hartzearen ekarpenen azken dokumentua.** Dokumentuak prozesu osoaren ondorioak jasoko ditu eta Zuzendaritza Teknikoak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenarako baliatuko duen dokumentu nagusia izango da. Parte hartzeko Gidaren egitura bera izango du, bertatik garatutako dokumentua baita.
- **Dibulgaziozko materiala.** Txostena fase honetan garatutako dibulgaziozko materialarekin osatuko da, liburuxka bat eta dibulgaziozko azken materialak barne.
- **Jarduera-memoria.** Fase honetan egindako jarduerekin eguneratua: iritziak erkatzeko azken saioa, lurraldearen eguna, dibulgaziorako espazioak.

Dokumentua amaitzeko, fase honetan Parte hartzeko prozesuaren eta gauzatutako komunikazio-lanen ebaluazioa egingo da.

## 17. Erakundeek eta gizarteak parte hartzeko espazioekin azkeneko iritziak erkatzea

**Helburua:** Parte-hartzearen ekarpenak jasotzen dituen Azken Dokumentua prestatu baino lehen, hasierako ondorioen balorazioa jasotzea.

**Deskribapena:** Parte-hartzearen ekarpenak jasotzen dituen Azken Dokumentuaren zirriborroak ateratako prozesuaren ondorioetan oinarrituta, sortutako espazio bakoitzarekin bilera bat egingo da (lehenengo erakundeekin eta gero gizartearekin edo Kanpo Foroarekin). Bilera horietan prozesua oro har baloratzeaz gain, prozesuaren emaitzak eta ondorioak ere aztertuko dira.

Ondorioen balorazioa lortzeaz gain, bilerek prozesu osoaren kanpo-balorazioa egiteko ere balioko dute. Hartara, esperientzia horrek etorkizunean egokitzapenak egiteko balioko du, dela geroko izapidetze-prozesuan (Irakokizunak eta Alegazioak egiteko etapetan) edo dela antzeko beste Parte hartzeko prozesu batzuetan.

Bilera horietatik abiatuta eta geroago dokumentua idatziko duen taldearen lanari esker eta Zuzendaritza Teknikoaren ekarpenei esker, Parte hartzeko prozesuaren ondorioak jasoko dituen Azken Dokumentua idazteko prest egongo gara.

**Kanalak:**  
Gobernantza

**Maila:**  
Lurralde-maila

**Gaiak:**  
Sektorialak eta Zeharkakoak

**Kokapena:**  
Eusko Jaurlaritzak Vitoria-  
Gasteizen duen egoitza

**Tenporalizazioa:**  
8. HILA

**Eragileak:**  
Eusko Jaurlaritza, Kanpo Foroa  
Lurralde Politikarako Aholku  
Batzordea  
EAELABen Lantalde Teknikoa

### **Adierazleak:**

> Eremu bakoitzari gutxienez ere bilera baterako deialdia egitea fase honetan.

## 18. Parte-hartzearen ekarpenak jasotzen dituen Azken Dokumentua prestatzea

**Helburua:** Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak Berrikusteko Prozesuan aintzat hartuko diren parte hartzeko proposamenei buruzko ondorioak ateratzea.

**Deskribapena:** Erakundeen parte-hartzearen organoetatik (Lurralde Politikarako Aholku Batzordea, EAELABen lantalde teknikoa) lortutako balorazioetatik abiatuta, maila bakoitzean **Parte hartzeko prozesuak zer ondorio eman dituen** eta prozesuan zer proposamen adostu diren azalduko duen Azken Dokumentua prestatuko da.

Zuzendaritza Teknikoarekin lan-bilerak egingo dira eta beharrezkoa den informazio teknikoa bilduko da (administrazioen arloko txostenak eta eskuragarri dauden barne-txostenak). Biler horietan, **prozesua dokumentatzeko eta erregistratzeko proposatutako sistemaren bidez lortutako emaitzak alderatuko dira**; hartara, dokumentuan txertatzeko gaiak identifikatu eta beharrezko egokitzapenak egin ahal izango dira.

Parte-hartzearen ekarpenak jasotzen dituen Azken Dokumentua prestatzek eta horrekin batera egingo diren lan-bilerek balio beharko dute, halaber, **egindako lanaren barne-balorazio orokor bat egiteko eta oraindik egiteke dagoen izapidetze-prozesurako beharrezkoak diren estrategiak finkatzeko**.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak Berrikusteko Prozesuaren parte-hartzea aurreko faseetan gertatu da nagusiki, orduantxe duelako parte-hartzeak eraginkortasunik handiena. Hargatik, garrantzitsua da egindako lanarekin jarraitzea eta eragileekin ezarritako kanalak baliatzea. Hala, informazioa emateko ekintzak, dibulgaziozko ekintzak eta ekintza pedagogikoak gauzatu eta, iradokizunak eta alegazioak jasotzeko aldiekin bat eginez, balioztatze eta egokitzeko estrategiak finkatuko dira.

**Kanalak:**  
Dokumentazioa

**Maila:**  
EAE

**Gaiak:**  
Orokorra

**Kokapena:**  
--

**Temporalizazioa:**  
8. HILA

**Eragileak:**  
Eusko Jaurlaritza

### Adierazleak:

- > Gutxienez ere erregistro-sistemaren 20 iturritan oinarritzea parte-hartzearen ekarpenak jasotzen dituen Azken Dokumentua prestatzeko.
- > Behin betiko dokumentua eman baino lehen, Zuzendaritza Teknikoari dokumentuaren zirriborro bat ematea.
- > Bukatu gabe dagoen prozesurako, parte-hartzeari buruzko gomendioak dituen dokumentua osatzea.

## 19. Lurraldearen eguna EUKAL HIRIA 2016 kongresuan

**Helburua:** Herritarrei eta eragile parte-hartzaileei Parte hartzeko prozesuaren emaitzen berri ematea.

**Deskribapena:** Prozesuari amaiera emateko, informatzeko helburua duen jardunaldi bat antolatuko da jai-giroan, azken dokumentuaren emaitzak eta ondorioak ezagutaraziko dituen. Orobat, prozesuan parte hartu duten pertsoneri esker ona adierazteko eta itzulketa egiteko aukera ere baliatuko du jardunaldiak.

Jardunaldiak Euskal Hiria 2016 kongresuaren antolaketarekin bat egingo du eta antolatzeko ardura hartu duen hiriburuan izango da (oraingo honetan, Donostian). Asmoa da beste bi lurralde historikoetan ere errepikatzea.

- **Azken Dokumentuaren eta bertako ondorioen berri emango duen aurkezpen ofiziala.** Prozesuaren laburpen-bideoa ere proiektatuko da orduan eta egun osoan proiektzioan egongo da bertara hurbiltzen direnentzat.
- **Parte-hartzearen ekarpenak jasotzen dituen Azken Dokumentuaren dibulgaziorako instalazioa.** Panelen eta material grafikoaren bidez, prozesuaren lorpenak ezagutu eta etorkizuneko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroei buruzko informazioa jaso ahal izango dute. Instalazioak prozesuaren nondik norakoak kontatuko dituen material grafikoa izango du gainera. Halaber, argazkiak ateratzeko gune bat ere egongo da – *photocall delako baten modura*-, jendeak lurraldearen maparekin argazkia atera ahal izateko.

Emaitzen informazio-kanpaina eta hiru lurraldeetan egingo diren jarduerak abiarazteko eguna ere izango da.

**Kanalak:**  
Zabalkundea  
Herritarrak

**Maila:**  
EAE

**Gaiak:**  
Orokorra

**Kokapena:**  
Lurralde Historikoetako biltzar-  
jauregiak eta espazio publiko  
mugakideak

**Tenporalizazioa:**  
8.-9. HILA

**Eragileak:**  
Guztiak

**Adierazleak:**

- > Ekitaldiaren zabalkundea egitea eta ondorioz, gutxienez ere 50 pertsona bertaratzea.
- > Dibulgaziorako instalazioa eta prozesuaren ondorioak aurkeztea.

## 20. Dibulgaziorako espazio ibiltaria

**Helburua:** Herritarrei eta Eremu Funtzionaletako eragileei Parte hartzeko prozesuaren emaitzen berri ematea.

**Deskribapena:** Lurraldearen Eguna osatzeko, Eremu Funtzionaletan Parte hartzeko prozesuaren emaitzak ezagutarazteko instalazio informatzaile eta dibulgatzailea sortuko da. Hala, Parte hartzeko prozesuaren maila honetan parte hartu dutenei itzulketa egiteko ere balioko du.

Azken Dokumentuaren instalazio dibulgatzaile bat antolatuko da, Lurraldearen Egunean erabilitakoaren antzekoa. Bertan, panelen eta material grafikoaren bidez, prozesuaren ondorio orokorrak ezagutaraziko dira.

Instalazioa Eremu Funtzionaletan zehar mugituko da eta aldi bakoitzean Eremu Funtzional bakoitzeko ekipamendu publikoren batean egongo da.

**Kanalak:**  
Zabalkundea  
Herritarrak

**Maila:**  
EAE

**Gaiak:**  
Orokorra

**Kokapena:**  
Eremu Funtzionaletako gunen nagusietako ekipamenduak

**Tenporalizazioa:**  
8.-9. HILA

**Eragileak:**  
Gizarte Zibila

**Adierazleak:**

- > Batetik bestera mugitzeko aukera ematen duen instalazio egonkorra eta iraunkorra sortzea.
- > Instalazioa 3 lurralde historikoetara eramatea.

## 21. LAGetan parte hartzeko proposamenei buruzko informazioa zabaltzea tokiko eremuan

**Helburua:** Parte hartzeko prozesuaren emaitzen eta ondorio orokorren berri ematea.

**Deskribapena:** Adituak ez diren herritarrei egindako lanaren ondorioen eta hemendik aurrera egingo den berrikuspen-prozesuaren berri emango zaie.

Prozesuaren abiarazte-kanpainan bezalaxe, hizkuntza ulertteraza erabiliko da eta prozesuak duen izaera irekia eta berritzailea eta emaitzek EAEko lurraldeari ekarriko dizkieten onurak nabarmenduko dira.

Halaber, komunikabideek zabaltzeko prestatutako dibulgaziorako laburpen bat eta Eusko Jaurlaritzaren sareetan argitaratuko den argibide liburuxka bat egingo dira. Zuzendaritza Teknikoak ontzat ematen badu, maila txikiagoko administrazioetan (foru- eta udal administrazioetan) banatuko da.

**Kanalak:**  
Zabalkundea

**Maila:**  
EAE

**Gaiak:**  
Orokorra

**Kokapena:**  
--

**Tenporalizazioa:**  
8. -9. HILA

**Eragileak:**  
Gizarte Zibila

**Adierazleak:**

- > Prentsa-oharra gutxienez ere 2 agentzia eta 3 komunikabidetara helaraztea.
- > Gutxienez ere 4 komunikabidetan prentsa-oharraren berri azaltzea.



## 5. KUDEAKETA-SISTEMAK

### Komunikazioa

Hasiera batean **(5.1) Hizkuntza teknikoak hartzailerak egokitzeko lana eta (5.2) Komunikazio Plana** (mezua gizarteari helarazteko prozesua bezala ere ezagutzen dena) deskribatzen dira, euskararen sustapena azpimarratuz. Kontuan hartu beharreko faktore gisa, prozesua bi sexuen inklusio orekatuan oinarritzen da **(5.3) Berdintasunezko prozesu bat sustatzeko neurrien** bidez. Zeregin eta metodologia horiek funtsezkoak izango dira hasten ari garen prozesuan EAEko gizarte osoak parte hartu dezan.

### Idazkaritza Teknikoa

Ekintzetan azaldutakoaren laburpen gisa, **(5.4) Idazkaritza teknikoak** edo talde aholkulariak Eusko Jaurlaritzari dagokion Zuzendaritza Teknikoan laguntzeko beteko duen rola deskribatzen da. Atal honetan orobat, prozesuaren **(5.5) Erregistro-sistema** azaltzen da. Prozesu arrakastatsua lortzeko oso garrantzitsua baita ekarpen guztiak tratatzea eta aintzat hartzea. Informazio-eranskinean, **(5.6) Eragileen** eta haiek prozesuan betetzen dituzten rolen azterketa bat aurki daiteke.

## 5.1. Komunikazioa eta zabalkundea: gizarteari mezuak helarazteko sistemak

Komunikazioak proiektu osoan garatzen diren ekintzak barne hartzen ditu eta, osorik hartuta, jarraian deskribatzen den entitate propioko estrategia bat osatzen du.

### 5.1.1. Planteamendu orokorra

Komunikazioa funtsezkoa da herritarrek eta gainerako eragileek proiektua aintzat hartu eta, hortaz, proiektuan inplika daitezten. Era berean, komunikazio-mekanismoak prozesuaren gardentasuna bermatzeaz arduratuko dira, halako moldez, non bertako biztanleek sentituko duten Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak Berrikusteko Prozesuaren garapenean ematen diren urrats guztien jakinaren gainean daudela.

Zabalkunde- eta kontzientziazio-kanpaina honen helburuak honako hauek izango dira:

- Prozesuari tokiko, autonomia mailako eta nazioarteko ikusgarritasuna ematea eta Parte hartzeko prozesua erreferentzia bihurtzea.
- Jendeak programatutako jardueretan parte hartzea lortzea.
- Garatzen diren jarduera eta programak laguntzea eta gardentasunez aurkeztea.
- Biztanleak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen, haien edukien eta garapen beraren gainean sensibilizatzea.

Helburu horiek lortzeko, sareetan online strategiaren bidez garatzen den kanpaina bat eta komunikabideei zuzendutako beste kanpaina bat egitea proposatzen da, nagusiki bertako komunikabideak erabilita: irratiak, egunkariak, webguneak eta aldizkariak.

### 5.1.2. Informazioa zabaltzeko bideen definizioa

Informazioa zabaltzeko bide hauek erabiliko dira:

- Tokiko komunikabideak: irratia, prentsa eta telebista.
- Komunikabide digitalak: webguneak eta blogak.
- Irekia ataria (webgunea, Twitterreko eta Facebookeko profilak).
- Sare sozialak (Twitter, Facebook, G+).
- Afixak, triptikoak eta informatzeko bestelako gailu fisikoak.
- Ekipamendu publikoak eta Eremu Funtzionaletan egun badauden partaidetza-espazioak.

### 5.1.3. Komunikatzeko hizkuntzak

Komunikazio guztia, planaren edukiak eta sareen kudeaketa euskaraz nahiz gaztelaniaz egingo dira. Horrela, bai sareetan bai komunikabide-estrategian argitaratzen diren eduki guztiak bi hizkuntzetan agertuko dira.

### 5.1.4. Euskaraz parte hartzea laguntzeko berariazko neurriak

Azpimarratu beharra dago baita ere prozesuak euskararen aldeko ekintza onuragarriak jasotzen dituela. Izan ere, bete-betean bermatuko da prozesua ele bitan garatzeko xedea, Euskal Herrian euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasuna errespetatuz.

Zehazki, euskara komunikazio-hizkuntza izango da ahal den neurrian; hortaz, foroetan eta zerbitzu-prozesuetan euskararen erabilera bermatuko da.

Bi hizkuntza ofizialen erabilerari dagokiolarik, proiektuak sorrarazten duen dokumentazioa bi hizkuntza ofizialetan prestatuko da.

Euskaraz parte hartzea laguntzeko berariazko neurriak hartzeko garaian, 2013-2017 aldirako Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusi onartu berrian jasotzen diren irizpideak moldatuko dira.

### 5.1.5. Online estrategia

Online estrategiak estuki erlazionatuta egongo diren bi atal ditu:

1. Komunikazio digitala: informazio eguneratua iraultzea eta erabiliko diren kanal ezberdinen (webgunea eta sare sozialak) bidez sortutako materiala helburuekin bat etorriaz zabaltzea.
2. Parte-hartze digitala, aldiz, prozesuaren fasea bakoitzean online egiten diren ekarpenak txosten eta estatistiketan biltzean eta erregistratzean, eta horiek Parte hartzeko prozesuan iraultzean datza.

#### Komunikazio digitala

Oro har, sare sozial digitalak erabiliko dira Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesua eta programatutakoaren artean ikusgarritasun gehien duten ekintzak hedatzeko baliabide gisa, honako hiru fase hauetan:

- Aurretiko komunikazioa: proiektua eta jarduerak sare sozialen eta komunikabide jeneralisten (irratia, prentsa eta telebista) eta espezializatuen (blogak eta webgune espezializatuak) bidez zabaltzea.
- Komunikazioa prozesuan zehar: prozesua zuzenean jarraitzea sare sozial digitalen bidez, Twitterren eta Facebooken argazkiak argitaratzea, eta Paisaje Transversalen blogean, Eusko Jaurlaritzaren webgunean eta abarretan laburpenak zabaltzea.
- Ondorengo komunikazioa: sare sozialen eta komunikabideen bidez emaitzak eta ondorioak zabaltzea.

Zabalkunde eta komunikazio digitalerako kanal ezberdinen artean, honako hauek erabiltzea proposatzen da:

#### Webgunea eta bloga

Prozesuaren jarraipena egiteko eta prozesu garden zein irekia bermatzeko espazio digital bat sortuko da. Horretarako, irekia gunean espazio bat (blog bat) irekiko da eta azpidomeinu bat **sortuko** da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean.

Prozesuaren bloga Eusko Jaurlaritzaren Irekia plataforman egongo da kokatuta eta eginkizun hauek beteko ditu:

- Parte hartzeko prozesu osoa monitorizatzen eta kontatzen duen egunkari digitala, prozesuaren gardentasuna bermatzeko tresna bihurtuko dena.

- Prozesuaren eta planaren eduki guztiak zentralizatzea: dokumentazioa, estekak, txostenak, egutegia, eta abar.
- Informazio eguneratua iraultzea eta sortutako materiala helburuekin bat etorriaz zabaltzea.

Bestetik, orientazio modura, webgunea honako atal hauetan banatuko da:

- ZER DA? Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak zer diren -aurretiko sentsibilizazio-kanpainarako prestatutako mezua oinarri hartuta- eta Parte hartzeko prozesuaren helburuak zein diren azaltzea.
- NOLA EGINGO DUGU? Garapena, ekintzen egutegia barne, gaiak eta gutxi gorabeherako datak azaltzea. Atal honek Parte hartzeko Gidaren edukiak jasotzen ditu.
- NOLA HARTU PARTE? Eragile eta kolektibo ezberdinen parte-hartzea ahalbidetuko duten kanal eta espazio desberdinen azalpena. Atal honen baitan parte-hartze digitalerako kanalak sartzen dira.
- ZER ARI DA GERTATZEN? Prozesuari jarraipen etengabea egiten dion blog-bitakora; izan ere, hemen argitaratuko dira ekitaldi, tailer eta lan-saioetarako deialdiak, baita haien kronikak ere.
- EMAITZAK: Atal honen helburua prozesuaren, lortutako emaitzen eta ateratako ondorioen jarraipena egitea izango da. Informazioa biltzeko eta kudeatzeko tresnaren bidez, "5.2. Prozesuaren Erregistro-sistema" atalean deskribatzen dena, unera arte bildutako informazioaren emaitzak ezagutzeko bistaratzeak sortuko dira.
- JARRAI EZAZU: Prozesua jarraitzeko sare sozialak eta mekanismoak, baita jarduera ezberdinen egutegia ere, zehazten dituen atala.

### Sare sozialak

Eusko Jaurlaritzako eta Irekia guneko sare sozialetako profilak erabiliko dira prozesuaren komunikazioa eta jarraipena egiteko. Horretarako, Twitterreko eta Facebookeko profilak erabiliko dira.

### Komunikabideak

Estrategia analogikoa eragina eta publizitatea sortzera bideratuko da, baita komunikabide tradizional eta digitalen bidez ikusgarritasuna sortzera ere. Hori guztia biztanleak prozesuaren aurrerapenaren gainean informatuta egoteko eta prozesuan parte hartzera animatzeko helburuarekin.

Bertako komunikabide ezberdinen (prentsa idatzia, irratia eta telebista) bidez, ahalik eta estaldura zabal eta jarraituena sortzeko ahalegina egingo da.

## 5.1.6. Parte-hartze digitala

Parte-hartze digitala garatzeko, komunikazio digitalerako erabiltzen diren kanal berdinak erabiliko dira, baina ikuspegia eta kudeaketa desberdinak izango dira, parte-hartze digitalak sareen bidez egindako ekarpenak biltzeko eta erregistratzeko helburua duelako.

### Twitter

Prozesu osorako etiketa (hashtag) bat definituko da (#LAG\_Euskadi, adibidez) eta, jorratzen den gaiaren arabera, bigarren mailako hainbat etiketa (#etxebizitza, #mugikortasuna, #paisaia, #azpiegiturak, eta abar).

Deskribatutako tresnen bidez lortutako informazioa sailkatu eta Parte hartzeko prozesuan txertatuko da.

Gai batzuen gaineko ikuspegi orokorra emango duen informazio hori prozesuan txertatuko da eta parte-hartze fisikotik eratorritako informazioarekin gurutzatu egingo da.

### Facebook

Facebooken kasuan, sarrerei edo argazkiei eginiko iruzkinen bidez eta berariazko inkestean bidez, informazioa eta iritziak bilduko dira.

Estatistiken eta online egindako ekarpenen txostena prestatuko da.

Prozesuan zehar jasotzen den informazio guztiarekin online estrategiaren bidez jasotako ekarpen guztiak barne hartzen dituen txosten bat prestatuko da. Hala, edukiak hautatu eta labur-labur aurkeztuko dira, horietatik guztietatik berrikuspenaren prozesuan txertatuko diren gakorik garrantzitsuenak edo interesgarrienak lortzeko.

Txostena formatu digitalean egongo da eskuragarri, prozesuaren webgunean argitaratuko da eta sare sozialetako profilen bidez zabalduko da.

### Irekia

Goiko atalaren bitartez Irekia plataforma berak, sare sozial gisa, interakziorako dituen aukerak erakusten dira.

## 5.2. Hizkuntza tekniko hartzailera egokitzeko lana

Mota honetako prozesuetan beharrezkoa da edukiak oro har gizarteak eta bereziki prozesuan parte hartzen duten pertsonen erraz uler dezaketen hizkuntza xalora "itzultzea".

Horretarako honako ekintza hauek egingo dira:

- Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak zer diren eta Berrikuspenean Parte hartzeko Gida zer den azaltzen duten dibulgaziozko laburpen bat, dibulgaziozko liburuxka bat eta bideo bat prestatzea, haien mezuak labur-labur azalduta.
- Parte hartzeko prozesuan eta bukaeran erabiliko diren dibulgaziozko produktuen plangintza egitea.
- Oro har, ekintza bakoitzean hizkuntza tekniko hartzailera egokitzea, ekintza bakoitzaren helburuekin bat etorriaz.

### Dibulgaziozko materialak

Prozesua abiarazi ahal izateko oinezko EAEko gizarteari lurralde-antolamenduaren funtsezko kontzeptuen berri eman behar zaio; gutxienez ere, kontzeptu horien existentzia eta gizartean duten balioa ezagutu behar dute. Hala planteatzen dira zuzenean herritarrei zuzendutako sustapen-ekintza hauek.

- Afixak eta triptikoak.
- Bideoa.
- Parte hartzeko Gida: laburpen bat prestatu eta hizkuntza xalora itzuliko da, galderak, kontzeptuak, esaerak eta abar erabilia, ideiak freskotasunez eta arintasunez helarazi ahal izateko.
- Kontzeptuak tailerretan, jardunaldietan eta mahai teknikoetan zabaltzea.

Material hori guztia formatu digitalera pasako da eta webgunean sartuko. Horrez gain, irudi eta infografia guztiak prozesuaren sare sozial digitalen eta prozesua hedatzeko erabiltzen diren komunikabideen bidez banatu egingo dira. Ondorioz, prozesuaren komunikazioa indartuko da eta haren edukiak ulergarriagoak izango dira.

## 5.3. Berdintasunezko prozesu bat sustatzeko neurriak

### Berdintasunezko prozesu bat eta gizon-emakumeen ordezkariak orekatu bat sustatzeko neurriak

Prozesu honek arreta berezia jarriko du genero-ikuspegian, gizon-emakumeen berdintasunezko parte-hartzea bermatzen duen prozesu bat diseinatzeko oinarritzko kontu batzuk txertatuz. Hortaz, Parte hartzeko prozesuaren fase guztietan gizon-emakumeen ordezkariak orekatua sustatzeko eta, prozesuan, gizon-emakumeen egoera, baldintza, asmo eta behar desberdinak jasotzeko berariazko neurriak txertatuko dira.

### 5.3.1. Gizon-emakumeen parte-hartze inklusiborako neurriak

Ekintzetan berdintasunezko parte-hartzea bermatzeko, hainbat neurri hartuko dira, besteak beste:

- Tailerren eta lantaldeen konfigurazio paritarioa.
- Eztabaidetan parte-hartze paritarioa sustatzea.
- Ordezkeri edo eragile parte-hartzaileen aukeraketa paritarioa.
- Jarduerak lana eta familia bateragarri egitea ahalbidetzen duten ordutegietan egitea.
- Dinamika edo espazio paraleloak diseinatzea kontziliazio hori ahalbidetzeko (haurtzaindegiak, umeentzako tailerrak).
- Familia nukleoak osatzen dituzten adin desberdinetako pertsonen presentzia normalizatzea.

Garrantzitsua izango da baita ere komunikazioetan eta ekintzak garatzean hizkuntza inklusiboa edo ez-sexista erabiltzen dela bermatzea.

#### Denbora eta espazioak

Kontu handia izan behar dugu pertsonen denborarekin; denbora ondasun urri eta baliotsua baita. Horregatik, parte hartzen duten pertsonen beharrak asetzeko, haien betebeharretarako konponbideak eskaintzeko eta familia-inguruneak zein gizarteak baterako erantzukizuna hartzeko moduak bilatu behar ditugu; hori baita pertsonen parte hartzeko nahikoa denbora izatea lortzeko modu bakarra. Garrantzitsua da parte hartzen duten pertsona guztiei ondo datorkien ordu bat definitzea, eta jardueraren puntualtasuna eta iraupena errespetatzea, pertsonen haien agendak antola ditzaten.

Beharrezkoa izango da, halaber, proposatutako jarduerak garatzeko espazio egokienak bilatzea. Ildo horretan, espazioak haien erosotasunaren arabera (parte hartzen duten pertsonen iritzia oinarri hartuta) zehaztea eta aukeraketa emakumeak espazio horietan eroso sentitzen diren kontuan hartuta egitea planteatuko da. Tokiak ez du parte-hartzea inola ere baldintzatu behar: interferentziarik gabe eta pribatutasun-giroan lan egin daitekeen zona isolatu bat beharko dugu. Bilerak edo jarduerak egin ohi diren espazio komuna hasteko toki aproposa izan daiteke.

#### Neurrien xehetasuna

- Bertarutzen diren pertsonen kontziliazio-beharrak kontuan hartzen dituzten ordutegi eta tokiak ezarriko dira. Kasu bada, dagokion erakunde publikoari bileretan zain-zerbitzuak emateko neurriak hartzeko eskatuko zaio, bileretan atzemandako beharren arabera.

### Deialdiak: Parte hartzeko prozesurako deia

Gizon-emakumeen ordezkariak orekatua bermatzeko, deitzen diren erakundeak arreta handiz aukeratu beharko dira, baita haien izenean jardueretara etortzen diren pertsonak ere.

Horiek horrela, emakumeen parte-hartzea lehenesteko irizpidea ezarriko da, eta deitutako erakundeei berariaz eskatuko zaie haien ordezkariak hautatzean irizpide hori erabiltzeko. Era berean, deitutako eragileen artean emakumeak ordezkatzeko dituzten erakundeak bereziki baloratuko dira.

### Neurrien xehetasuna

- Parte hartzeko iragarki eta dei guztietan idatzizko hizkuntza ez-sexista erabiliko da, eta estereotipo sexistak indartzen dituzten irudien ordezkariak, emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua erakutsiz berdintasuna sustatzen duten irudiak erabiliko dira.
- **Udaletako Berdintasun Sailei edo Eskualdeko sail mankomunatuak emakumeen elkarten, talde feministen, ahalduzko-erakunde emakumeen, denbora-bankuen, emakumeen etxeen, emakume kirolarien eta abarren zerrenda eskatuko diegu Parte hartzeko prozesuaren baitan egiten diren bileretarako deialdiak pertsonalki bidali ahal izateko.** Bestetik, Eskualde edo Eremu Funtzionaletako Berdintasun Sail ezberdinetako teknikariei bilera guztietara etortzeko gonbita luzatuko zaie eta, aldi berean, udalaren edo mankomunitatearen Berdintasun Diagnostikoaren eta Planaren ildo nagusiak eskatuko zaizkie.
- Bileretara bertaratzeko deialdiak banatzean, kontuan hartuko dira **udalerrri bakoitzeko emakume guztiak neurri handiagoan kontakta daitezkeen kokapenak**, landa-eremuak, ikastetxeak, osasun-zentroak eta abar lehenetsiz. Nolanahi ere, Eskualdeko Berdintasun Sailei kontsultatuko zaie emakumeek gehienbat igarotzen dituzten espazioei buruzko informazio zehatza lortzeko, zabalkundeak irismen hobea izan dezan.

### Dinamikak

Kontuan hartu beharra dago, deialdiak oso paritarioak izan arren, garatzen diren dinamikek emakumeen parte-hartzea hertsatu edo gizezkoen lidergoa bultzatu dezaketela.

Ildo horretan, dinamikak parte-hartze ekitatiboa lortze aldera diseinatu beharko dira; eta hori lidergo kolektiboaren bidez bakarrik lor daiteke. Lidergo kolektiboan lidergoa eta dinamizazio-lana partekatu egin behar dira.

Horiek horrela, dinamikak berdintasunezko eta banatutako parte-hartzea ahalbidetzea lortze aldera diseinatuko dira, inork hitza kentzea saihestuz eta, emakumeen diskriminazio positiboaren bidez, pertsona guztiek parte hartzea sustatuz.

Berdintasuna eta ekitatea sustatzen dituzten “jokoaren arauak” adostu beharko dira. Horretarako, parte hartzen duten taldeek parte-hartzea esperientziatik eta ezagutzatik eraikitzeko oinarriak ezarriko dituzte adostasunez.

### Neurrien xehetasuna

#### Bete beharreko galdeketa eta foroaren dinamika



- Prozesuan erabilitako galdeketa guztiek sexu-aldagaia barne hartuko dute, bai gizabanakoekin erlazionatutako datuei dagokienez bai prozesuan zehar proposamen bat aurkezten duen elkarte, talde edo erakundearen konposizioari dagokionez. Era berean, herritarrek aurkezten dituzten proposamenen xehetasunean, honako hauekin lotutako datuak eskatuko dira:
  - Proiektuaren onuradunen gutxi gorabeherako kopurua, sexuen arabera banatuta.
  - Proiektuaren berariazko eremuan, emakume eta gizonen artean Eskualdean existitzen diren desberdintasunak adieraztea.
  - Proiektuak emakumeengan eta gizonengan izango duen inpaktua.
- Bileren dinamiketan, gure langileek arreta berezia eskainiko diote bi sexuek eta, bereziki, Eskualdearen errealitate soziala genero-ikuspegitik aztertu duten kolektiboek aktiboki parte hartzea sustatzeari.
- Ahozko hitzaldi guztietan, gure langileek hizkuntza inklusiboa erabiliko dute, batik bat, maskulino generikoaren erabilera saihestuz.
- Lantaldeak sortzeko parekotasun-irizpidea erabiliko da bileretara etortzen diren pertsonak banatzerakoan; hortaz, lantalde guztiek emakumeen eta gizonen ekarpen orekatuak jasoko dituzte.

### Sortutako informazioaren tratamendua

- Bilera bakoitzean emakumeen eta gizonen presentzia aztertuko da sexu batek edo besteak, gaiak, tokia edota ordutegiak direla eta, behin baino gehiagotan huts egiten duen ikusteko. Horrela, hurrengo bilera edo prozesuetarako ekintza zuzentzaileak ezarri ahal izango dira.
- Pertsonekin erlazionatutako datuak jasotzen dituzten txosten, dokumentu eta abarrak sexuen arabera banatuko dira eta, informazioak ahalbidetzen duen neurrian, genero-ikuspegitik aztertuko dira.
- Prozesuan hainbat genero-adierazle garatuko dira, honako hauen inguruan:
  - Prozesuan sartuta dauden emakume eta gizonen parte-hartze tasa orokorra.
  - Parte hartzen duten elkarte, talde, erakunde eta abarren kopurua, elkarte mota (mistoa, gizonezkoena edo emakumezkoena) eta elkarte osatzen duten pertsonen kopurua, sexuen arabera banatuta.
  - Azterketan eta diseinuan genero-ikuspegia txertatu duten proposamenen kopurua.

### Prozesuan sorburu duten jarduerak lehenestea

- Proiektuaren talde eragilearekin proposamenak lehenesteko irizpideak adostean, gure ustez, besteak beste, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Planean (2012-2020) jasotzen diren eraldaketarako ildoekin bat egiten duten irizpideak gogoan hartu beharko liriteke: Sare eta praktika feministak, Zainketa duinak eta guztientzat, Bizitzaren jasangarritasunerako ekonomia, Ingurune jasangarria eta Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak.
- Nolanahi ere, leheneste-irizpideetan honako ildo hauek eranstea gomendatzen dugu:
  - Proposamenaren **azterketan eta diseinuan genero-ikuspegia** txertatzea.
  - Proiektuaren edo proposamenaren populazioaren estaldura-tasa, sexuen arabera banatuta. Gomendagarria da estaldura-tasaren azterketa absolutua bakarrik ez egitea, baizik eta tasa hori Eskualdean gizon eta emakumeen artean atzeman diren desberdintasunak ebatzen laguntzeko proiektuak izan duen inpaktuarekin lotzea. Izan ere, proiektu asko populazio osoari zuzenduta badaude ere, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak mantentzen edo desagerrarazten lagun dezakete, baita desberdintasunak sakontzen ere.

## - 5.4. Idazkaritza Teknikoa

Talde teknikoak Idazkaritza Teknikoari dagozkion zereginak beteko ditu, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzaren laguntzarekin. Idazkaritzak laguntza- eta garapen-lanak egingo ditu proposatutako ekintza guztien bidez; eta ekintza bakoitzerako 4. atalean deskribatutako hainbat zeregin planteatu dira.

Proposatutako ekintza bakoitzaren inguruan, Idazkaritza **bilerak, jardunaldiak, tailerrak, mahaiak eta aurkezpenak antolatzeko beharrezko logistikaz** arduratuko da. Era berean, Zuzendaritza Teknikoak beharrezkotzat jotzen duen aholkularitza-lana egingo du, eta egutegiaren plangintza bateratua egin beharko du. Ekintza bakoitzaren material guztiak garatu, aurkezpenak antolatu, deitu eta egin, tailerrak dinamizatu, saio guztien oharra idatzi eta audioa grabatu, eta aipatutako memoria eta laburpenak prestatu beharko ditu.

**Laburbilduz, parte hartzeko saioetarako** honako zeregin hauek planteatzen dira:

### Saioen aurretiko zereginak

- Aurretiko sentsibilizazioa eta informazioa (orokorra eta pertsonalizatua).
- Zeregin logistikoak (biltzeko tokia identifikatzea, lan egiteko baldintza onenak bermatzea, parte-hartzaileen kontaktua eta jarraipena egitea, eta abar).
- Saioetarako materialak prestatzea (Power Point orokorrak, bertan lan egiteko eta, beharrezkoa denean, informazioa entregatzeko dokumentazioa).

### Saioetan bete beharreko zereginak

- Parte-hartzaileei harrera egitea.
- Aurkezpenak egitea eta koordinatzea.
- Sortzen diren arazoak konpontzea edo arazoak konpon ditzakeen pertsonari helaraztea eta erantzuna arazoa planteatu duen pertsonari helaraztea.
- Eztabaida-espazioak dinamizatzea.
- Proposamenak biltzea.
- Saioaren ebaluazioa egitea.
- Akta prestatzea.
- Akta prozesuaren azken memoria irudiztatzeko argazkiak egitea.

### Saioen ondoren bete beharreko zereginak

- Saio bakoitzean lortutako emaitzen txostena prestatzea.
- Erregistro guztiak biltzea eta azken laburpena egitea adostutako erabakien matrizearen bidez.
- Txostena eta aurkezpena parte-hartzaileei bidaltzea.

### Adierazle-sistema

Prozesuan abiarazten diren ekintzen betetze-maila baloratzen laguntzen duten adierazle objektibo eta subjektiboan **Adierazle-sistema** bat proposatzen da.

Jarraian adierazleen zerrenda oso bat aurki daiteke. Zerrenda hori prozesuaren amaieran barne-kontrolako sistema gisa balioztatuko da:

## EKINTZA

## ADIERAZLEA

- |  |  |
|--|--|
| <p>01 Erakundeek parte hartzeko espazioak eratzea</p> <p>02 Prozesuaz aldez aurretik zer informazio dagoen garatzea</p> <p>03 Prozesuaren irudia sortzea</p> <p>04 Zer dira LAGak? informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina</p> <p>05 Oinarrizko Dokumentuko Galdeketa</p> <p>06 Prozesuaren web-orria eta identitate digitala sortzea</p> <p>07 Parte-hartze digitalaren irekiera</p> <p>08 Hasiera: prozesua hasteko jardunaldia</p> <p>09 Hasiera: komunikazio-kanpaina prentsan</p> <p>10 Herritarrentzako postontzi eta panelak</p> <p>11 "LAGak Eremu Funtzionaletan" izeneko parte hartzeko jardunaldiak</p> <p>12 Erakundeek eta gizarteak parte hartzeko bilerak</p> <p>13 Aurkezpen publikoak Lurralde Historikoetan</p> <p>14 Gaikako Mahaiak</p> <p>15 Sare sozialetako informazioa biltzea eta prozesatzea</p> <p>16 Iritziak erkatzeko azken saioa</p> <p>17 Erakundeek eta gizarteak parte hartzeko espazioekin azkeneko iritziak erkatzea</p> <p>18 Parte-hartzearen ekarpenak jasotzen dituen Azken Dokumentua garatzea</p> <p>19 Lurraldearen Eguna EUSKAL HIRIA 2016 kongresuan</p> <p>20 Dibulgaziorako espazio ibiltaria</p> <p>21 Tokiko informazio-kanpaina</p> | <p>1 Fase bakoitzean erakundeek parte-hartzea osatzen duten bi taldeekin bilera bat izatea: CAPT eta PT</p> <p>2 Haien proposamenak Oinarrizko Dokumentuan txertatzea</p> <p>3 Parte hartzeko Plan osoa aurkeztea, ele bietan eta adostua</p> <p>4 Parte-hartzearen Esparruaren zirriborro adostua aurkeztea, ele bietan eta modu ulerterrazean Idatzia</p> <p>5 Eragileen Mapa osoa sortzea</p> <p>6 Komunikazio-plana, dibulgaziozko materialak eta irudi digitala prestatzea</p> <p>7 Zuzendaritza Teknikoarekin adostutako ereduak irudi bertikala diseinatzea</p> <p>8 Irudia kartel bertikalekara zein horizontalekara eta web-orriara zein liburuxketara egokitzea</p> <p>9 Irudia prozesuaren web-orriara eta blogera egokitzea</p> <p>10 Dibulgaziozko liburuxka eta materiala sortzea, hizkuntza xaloa darabilena eta Zuzendaritza Teknikoarekin adostua dagoena</p> <p>11 Zuzendaritza Teknikoarekin adostutako dibulgaziozko bideo bat sortzea</p> <p>12 Sentsibilizazio-kanpaina herritarrengana 6 kanal baino gehiagoren bitartez iristea</p> <p>13 Gutxienez ere 30 erakunderekin harremanetan jartzea</p> <p>14 Hautatutako eragileei informazioa bidaltzea eta haien informazioa jasotzea</p> <p>15 Gutxienez ere 15 erakunderekin bilerak izatea</p> <p>16 2. Fasea amaitu baino lehen, Irekia webgunearen baitan adostutako bloga sortzea</p> <p>17 2. Fasea amaitu baino lehen, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean prozesuari dagokion atala eratzea</p> <p>18 Gutxienez ere Irekian, Twitterren y Facebooken iritziak jasotzeko aukera zabaltzea</p> <p>19 Gutxienez ere 5 interakzio egitea fase horretan abiarazitako sare digital bakoitzean</p> <p>20 Prentsaurrekora gutxienez ere 4 komunikabide bertaratzea lortzea</p> <p>21 Eremu Funtzionaletan egindako ekarpenak behar bezala itzultzea</p> <p>22 Prentsa-oharra gutxienez ere 2 agentzia eta 3 komunikabidetara helaraztea</p> <p>23 Gutxienez ere 4 komunikabidetan prentsa-oharrari buruzko argitalpena azaltzea</p> <p>24 Irekia web-gunean iritziak jasotzeko online inprimaki bat sortzea</p> <p>25 Udalsarearen bitartez zabalduko den kita sortzea</p> <p>26 Jardunaldiak gutxienez ere Eremu Funtzional guztiak estaliko dituen 18 kokalekutan egitea</p> <p>27 Kokaleku bakoitzera batez beste gutxienez ere 20 pertsona bertaratzea</p> <p>28 Bertaratutako emakumeen edo gizonen ehuneko % 30etik gorakoa izatea</p> <p>29 Eremu bakoitzari gutxienez ere bilera baterako deialdia egitea fase horretan</p> <p>30 3 lurraldeetan 3 aurkezpen antolatzea, eta lurralde bakoitzean gutxienez 30 lagun bertaratzea</p> <p>31 Eremu Funtzionaletan egindako ekarpenak behar bezala itzultzea</p> <p>32 Lurralde bakoitzean batez beste gutxienez ere 30 pertsona bertaratzea</p> <p>33 Bertaratutako emakumeen edo gizonen ehuneko % 30etik gorakoa izatea</p> <p>34 Gutxienez ere komunikabide digitaletan utzitako 100 iritzi jasotzea</p> <p>35 Iritzi digitalen matrizea sortzea</p> <p>36 Lurralde bakoitzean batez beste gutxienez ere 30 pertsona bertaratzea</p> <p>37 Bertaratutako emakumeen edo gizonen ehuneko % 30etik gorakoa izatea</p> <p>38 Gutxienez ere edukien % 50ean ados jartzea</p> <p>39 Eremu bakoitzari gutxienez ere bilera baterako deialdia egitea fase horretan</p> <p>40 Gutxienez ere erregistro-sistemaren 20 iturritan oinarritzea parte-hartzearen ekarpenak jasotzen dituen Azken Dokumentua prestatzeko</p> <p>41 Behin betiko dokumentua eman baino lehen, Zuzendaritza Teknikoari dokumentuaren zirriborro bat ematea</p> <p>42 Bukatu gabe dagoen prozesurako, parte-hartzeari buruzko gomendioak dituen dokumentua osatzea</p> <p>43 Ekitaldiaren zabalkundea egitea eta ondorioz, gutxienez ere 50 pertsona bertaratzea</p> <p>44 Dibulgaziorako instalazioa eta prozesuaren ondorioak aurkeztea</p> <p>45 Batetik bestera mugitzeko aukera ematen duen instalazio egonkorra eta iraunkorra sortzea</p> <p>46 Instalazioa 3 lurralde historikoetara eramatea</p> <p>47 Prentsa-oharra gutxienez ere 2 agentzia eta 3 komunikabidetara helaraztea</p> <p>48 Gutxienez ere 4 komunikabidetan prentsa-oharrari buruzko argitalpena azaltzea</p> |
|--|--|

Proposatutako tailer eta ekintza guztiak hartzeko eta antolatzeko balioko duten udal espazioen eta ekipamendu publikoen mapa osoa egingo da.

Abiapuntu gisa 15 Eremu Funtzionaletan honako kokapen hauek proposatzen dira:

EREMU FUNTZIONALA	SAIOETARAKO PROPOSATUTAKO ARETOA(K)	UDALERRIA
Balmaseda-Zalla	Kultur Etxea	Zalla
Beasain-Zumarraga	Kultur Etxea	Beasain
	Zelai Arizti Kultur Etxea	Zumarraga
Bilbao Metropolitarra	Azkuna Zentroa (Alhondiga Bilbao)	Bilbao
	Bizkaia Aretoa (EHU – UPV)	Bilbao
	Lan Ekintza-Bilbao,	
Donostia/San Sebastián	Tabakalera	Donostia / San Sebastián
	Tomasene Kulturetxea	
Durango	Landako Elkartegia	Durango
Eibar	Portalea	Eibar
Gernika-Markina	Astra	Gernika-Lumo
	Madariaga Dorretxea (EAEko Biodibertsitate Zentroa)	Busturia
	Kultur Etxea	Bermeo
	Uhagon Kulturgunea	Markina-Xemein
Igorre	Kultur Etxea	Igorre
Laguardia	Udaletxea	Laguardia
Laudio	Kultur Etxea	Laudio
	Katekesi aretoan	Amurrio
Arrasate-Bergara	Kulturate	Arrasate
	Irizar jauregia	Bergara
	Eltzia eraikina	Oñati
Mungia	Torrebillera Kultur Etxea	Mungia
Tolosa	Abastos eraikina	Tolosa
Araba Erdialdea	Montehermoso jauregia	Vitoria-Gasteiz
	Europa Biltzar Jauregia	Vitoria-Gasteiz
Zarautz-Azpeitia	Sanz Enea Kultur Etxea	Zarautz
	San Agustin Kulturgunea	Azpeitia
	Alondegia Kultur Etxea	Zumaia

## 5.5. PROZESUAREN ERREGISTRO-SISTEMA

### Metodologia

#### Oinarri metodologikoak

Funtsezkoa iruditzen zaigu horrelako iraupena eta helmena duen prozesu baten tarteko eta azken emaitzak ikuskatu, egiaztatu eta trazatu ahal izatea.

**Hala, prozesu guztian informazioa biltzeko, sailkatzeko eta itzultzeko metodologia argi, erabilgarri eta zehatz bat proposatzen da.**

- **Pedagogia:** erregistro-sistema erabilgarri eta argi bat proposatzen dugu, non Parte hartzeko prozesuaren egitura une oro agerikoa den. Bertan, nola, non eta zeren inguruan parte hartu dezakedan eta ekintza bakoitzaren emaitzak non kontsulta ditzakedan zehaztu behar da. Horretarako, Parte hartzeko prozesua helburu eta sorburu duen sistema bat erabiliko da.
- **Trazabilitatea:** sistema honekin, prozesuan zehar, ekintza partzial bakoitzaren emaitzak, parte-hartzaileak eta fase bakoitzaren ondorio laburtuak erraz kontsultatu ahal izango dira. Hortaz, aurreko urratsen emaitza prozesuaren edozein momentutan kontsultatu ahal izango da.
- **Gardentasuna:** era berean, prozesuak barne hartzen dituen ekintza guztien erregistro-sistema birtual eta fisikoa erabilgarri egongo da, prozesuaren garapenean biztanle kopuru handiena informatuta egotea bermatzeko.

#### Prozesua erregistratzeko irizpide metodologiko orokorra

**Prozesua erregistratzeko irizpideak LAGen berrikuspenean parte hartzeko prozesurako ezarri diren helburuetatik abiatuta definituko dira.** Helburu horiek LAGek jorratzen dituzten gaien inguruan parte-hartzearen bidez azpigai multzo bat sortzea aurreikusten dute, hauxe ahalbidetzeko:

- (1) aurreko lurralde-estrategiaren bidez lortutako helburuak finkatzea,
- (2) ikuspuntu desberdinak eta berraztertu beharreko lehentasunak ikusgarri egitea,
- (3) eta EAEn lurralde-funtzionamendua hobetzeko ikuspegi berriak sustatzea.

**Helburu horiek lortzeko eta xedeak prozesuan zehar pixkanaka lantzeko, erregistro-sistemak honela funtzionatuko du:** parte hartzeko ekintza bakoitzaren emaitzek, Parte hartzeko Gidak barne hartzen dituen gai sektorial eta zeharkako bakoitzarentzat, hainbat kategoria deskribatuko dituzte azpigai hauetarako: (1) mantendu beharreko alderdiak, (2) berrikusi-aldatu beharrekoak edo (3) LAGen berrikuspenean elementu berri gisa txertatu beharrekoak.

Azpigaiak sailkatzeko hiru kategoria hauez gain, prozesuaren hasieran kategoria aldaezin (0) baten (muga eztaba daezintzat jotzen diren zenbait azpigai dituena) berri emango da.

Jarraian (0), (1), (2) eta (3) kategoriak deskribatuko ditugu, hau da, Parte hartzeko prozesuaren bidez biltzen den informazioa **egituratzeko oinarri izango den irizpide orokorra**:

### (0) Mugak

Aldaezinak diren inbarianteak. Bloke honetan ezingo da parte hartu; hala ere, biztanleek horri buruz hitz egiten duten ala ez adieraziko da, gutxi gorabehera onartutako mugak diren ikusteko.

### (1) Oinarriak eta lortutako helburuak

Lortu diren eta onuragarritzat jotzen diren helburuak eta azken urteotan adostu diren antolamenduaren alderdi orokorrak. Azken 20 urteotan lurralde-antolamenduak EAEn lortu dituen aurrerapausoak dira; hortaz, helburua funtzionatzen duten egituretatik hastea da, hauek oinarri hartuta eraiki ahal izateko. **Aipatutako egiaztapen-prozesuak oinarri horiek zein diren adieraziko luke** eta komunikazio-, pedagogia- eta sentsibilizazio-ekintzen bidez esplizitatuko lituzke. Azken finean, lorpenetat hartzen diren oinarritzko kontzeptuak dira, eraikitze, moldatzeko eta berrikuntzak egiteko aukera ematen duen lurraldeko kultura bat, alegia. Kontzeptu horiek eztabaidatik kanpo daude hizketa konstruktiboa ez distortsionatzeko eta indarrak ondo zuzendu ahal izateko.

### (2) Berrikusi beharreko alderdiak

Lurralde-antolamenduan badaude eztabaida sortzen duten erabakiak eta kontzeptuak, eta ikuspuntu oso desberdinak azaltzen dira horien gainean. Era berean, planetan adostu ezin izan diren beste kontzeptu batzuk aurkitzen ditugu; presentzia handirik ez badute ere, beharrezkoa iruditzen zaigu kontzeptu horiek Parte hartzeko prozesuan sartzea, etorkizuneko jardueren norabidea zehazteko.

Atal honetan daude eztabaidatu beharreko funtsezko alderdiak. Funtsezkoak izateagatik, kontzeptuak hauek eragile desberdinen iritzia ikusgarri egitea ahalbidetzen duten prozesu arduratsuak behar dituzte.

### (3) Alderdi berriak, hobekuntzak

Parte hartzeko prozesuan funtsezkoa da irudimena sustatzen duten eta etorkizuna modu positiboan pentsarazten duten proposamen berri eta aurreratuak sartzea. Hobekuntza horiek zehaztu eta Parte hartzeko prozesuan sartu behar dira.

Atal honetan askatasun gehiago eman behar zaie eragile parte-hartzaileei jorratu beharreko alderdiak, kontzeptu berriak eta lurralde-antolamenduak azter ditzakeen proposamen berritzaileak proposatzeko.

**Hiru kategoria horiek oinarri hartuta, Parte hartzeko prozesuaren urrats guztiak erregistratzen dituen LABURPEN-MATRIZE bat sortuko da.** Matrizeak erlazioak erraz ezartzea ahalbidetuko du, baita ekintza bakoitzaren emaitzen eta fase bakoitzaren ondorioen jarraipena egitea ere.

Era berean, ondorioen MATRIZE honek **informazio xehaturekin** batera aurkeztuko da, non zein gai eta azpigai komentatzen diren gehien eta informazioaren jatorria ikus daitezkeen.

- Laburpen-matrizeak, azpigai bakoitzean, azpigai horren gainean bildutako iritzien kopurua txertatuko du.
- Parte-hartzearen jatorria aztertzeko, bai ekintza bakoitzaren bai fase bakoitzaren Laburpen-matrize guztiak parte hartu duten biztanleen karakterizazioarekin batera aurkeztuko dira: kopurua, egoera eta lurralde-jatorria.

Jarraian Eraitzen MATRIZEAREN maketa bat ikus daiteke. Zirriborro bat besterik ez da; hortaz, gaiak eta azpigaiak Galdeketa-fasearen amaieran egokitu beharko dira eta, bere aldetik, diseinu grafikoa ere hobetu eta doitu egingo da Prestakuntzako Fasean, ulergarria eta erakargarria izan dadin.





## Erregistro-sistemaren deskribapena

Informazioa erregistratzeko jarraitu beharreko irizpide metodologikoa deskribatu ondoren, Parte hartzeko prozesuan informazioa biltzeko, filtratzeko eta itzultzeko prozesua nola egingo den azalduko dugu, hau funtsezko kontua baita gardentasuna bermatzeko.

- **Informazioa biltzeko protokoloak.** Informazio-bilketa argia eta pedagogikoa izango da; gainera, parte-hartzaileen iritziak biltzeko sistema estandarizatu bat barne hartuko du. Horiek horrela, informazio-bilketak honako jarraibide hauek izango ditu:

- Gida metodologiko laburra ekintza bakoitzaren hasieran: zertaz hitz egingo dugu, nondik dator oinarri dugun informazioa, nola kudeatuko dugu ekintzaren ondoriozko informazioa eta non kontsulta daitezke emaitzak.
- Parte-hartzaileei buruzko informazioa: ekintza bakoitzeko parte-hartzaileen erregistro-fitxa prestatuko da, non izena, adina, lanbidea, bizilekua, jaioterria eta posta elektronikoko helbidea zehaztuko diren.
- Azken erregistroa: ekintza bakoitza amaitutakoan, parte hartzeko espazio bakoitzean sortutako proposamen eta ideia guztien zerrenda bilduko da. Tailerren kasuan dinamika bakoitzaren erregistro orokor bat egongo da, eta banakako parte hartzeko espazio fisiko eta birtualetan, erregistro bat pertsona bakoitzeko.

- **Informazioa filtratzeko irizpideak.** Deskribatutako irizpide metodologikoaren arabera, jarraipen xehatua egin ahal izateko, zertaz hitz egiten den (gaiak eta azpigaiak), zein kategoriaren baitan, nor esaten duen eta non esaten duen erregistratu behar da. Horiek horrela, bildutako informazioa eta iritzi guztiak parametro horien arabera sailkatuko dira. Horri esker, ekintza bakoitzaren eta fase bakoitzean egindako ekintza guztien gehiengoan ehunekoak atera ahal izango ditugu oinarritzko azpigaiak zein diren, berrikusteko prozesuan zeintzuk dauden eta, azkenik, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan sartzeko alderdi berriak zein diren definitzeko.

Funtsean, prozesuko ekintza baten bidez jasotako iritzi kolektibo edo banakako bakoitza datu-base batean erregistratuko da, honako parametro-erregistro honi jarraituz:

- **Gaia:** Parte hartzeko Gidak jasotzen dituen gai orokorren artean, iritziarekin lotutako gaia identifikatzen du.
- **Azpigaia:** Parte hartzeko Gidak jasotzen dituen azpigaien eta fase bakoitzaren ondoren txertatutako azpigai berrien artean, iritziarekin lotutako azpigaia identifikatzen du.
- **Kategoria:**
  - Muga
  - Oinarria
  - Berrikusi beharreko alderdia
  - Alderdi berria
- **Igorlea:** Banakako iritzia bada, pertsonaren identifikazioa eta, tailer baten emaitza baldin bada, iritzia ematen duten pertsona guztien identifikazioa.
  - Sexua: Gizona / Emakumea
  - Adin-tartea: Adinekoa / Heldua / Gaztea /
  - Jatorria: Migratzailea / Autoktonoa
- **Jatorria:** Iritzi hori igorri duten lagunen lurralde historikoa eta udalerrria identifikatzen ditu:

- Aurrekari historikoa: Araba / Gipuzkoa / Bizkaia
- Udalerria

- **Itzulketarako tresnak eta espazioak.** Prozesuaren erregistroak sortutako informazioaren itzulketa publikoa barne hartzen du, garatutako lan guztia kontsultagarri egon dadin. Jarduera bakoitzean eta fase bakoitzaren ondorio gisa lortutako emaitzen itzulketa, berriz, laburtuta aurkeztuko da informazioa ulergarriagoa izan dadin.

Alderdi biak kontuan hartuta, informazioaren itzulketa honako tresna eta espazio hauen bidez emango da jakitera.

#### **Jarduera edo parte hartzeko espazio bakoitzaren ekarpenen itzulketa.**

- **Tresnak:**
  - Emaitzen matrizea: jarduera bakoitzak emaitzen matrize bat izango du, gai bakoitzaren gaineko iritzien kopuruarekin eta parte-hartzaileen jatorriaren laburpenarekin. Informazio hori grafikoki bistaraziko da, oso ulergarria izan dadin.
  - Jardueraren akta: jardueraren laburpen bat argitaratuko da, parte-hartzaileen zerrenda eta datu-basean txertatutako iritzi guztien erregistroa barne.
- **Espazioak:** digitalak izango dira soilik:
  - Bistaratzek eta aktak webgunean argitaratuko dira.
  - Parte-hartzaileei aktak eta bistaratzeetarako estekak posta elektronikoko bidez bidaliko zaizkie.

#### **Itzulketa fase bakoitzaren ondorio edo erdibideko laburpen gisa.**

- **Tresnak:**
  - Emaitzen matrizea: ondorioen matrize bat sortuko da eta horren emaitza fase horretan egindako jardueren batura izango da, gai bakoitzaren gaineko iritzien kopuruarekin eta parte-hartzaileen jatorriaren laburpenarekin. Informazio hori grafikoki bistaraziko da, oso ulergarria izan dadin.
  - Deskribapen-txostena: emaitzak aztertzen dituen dokumentu bat argitaratuko da, gehien komentatu diren diren azpigaiak sakonago deskribatuta eta informazio hori eragin duten faseko jarduera guztien zerrenda zehaztuta, beti jarduera bakoitzaren gainean argitaratutako itzulketarekin lotuz.
- **Espazioak:**
  - Digitala:
    - Bistaratzek webgunean argitaratzea.
    - Parte-hartzaileei aktak eta bistaratzeetarako estekak posta elektronikoko bidez bidaltzea.
  - Fisikoa:
    - Jendaurreko aurkezpenak.
    - Fasearen emaitzen berri emateko dibulgaziorako instalazioak. Instalazio horiek garatutako parte hartzeko jarduerak azalduko dituzte, gehien komentatu diren azpigaiak sakonago deskribatuko dituzte eta Emaitzen matrizea bistaraziko dute.

## Prozesuaren erregistro-sistema garatzea

Jarraian Fase bakoitzari dagokion berariazko lana deskribatzen da, egingo den informazio-erregistroari dagokionez:

### 1. Prestakuntzako Fasea

- **Parte hartzeko aurretiko eskuliburua.** Parte hartzeko prozesuaren diagramatik abiatuta, eskuliburu bat prestatuko da: parte hartzeko espazioen mapa eta kronograma; nori zuzenduta dauden, zer gai komentatuko diren eta non kontsulta daitezkeen jarduera bakoitzaren emaitzak. Horrez gain, eskuliburu horrek modu errazean azalduko du nola bilduko den saio bakoitzeko informazioa eta zeri dagokion kategoria bakoitzak (mugak, oinarriak, berrikusi beharreko alderdiak eta alderdi berriak). Horiek horrela, aurretiko fasean parte hartzeko eskuliburua definitu egingo da, Parte hartzeko Gida onartzen duen Galdeketa-fasea amaitzean txertatuko diren gaiak izan ezik.
- **Emaitzen matrizearen bistaratze-maketa garatzea.** Emaitzen matrizearen webgunean bistartzeko sistema definituko da. **Erakundeek parte hartzeko organoen lana erregistratzea** (Lurralde Politikarako Aholku Batzordea, EAELABen Lantalde Teknikoa). Aipatu erakundeek parte hartzeko espazioek garatzen duten lanaren akta prestatuko da. Hori guztia webgunean argitaratuko da prozesuari ekitean.
- **1. Fasea amaitutakoan ekarpenak itzultzea:** Emaitzen matrize bat sortuko da **erakundeek parte hartzeko organoek** egindako lanarekin.

### 2. Galdeketa-fasea

- **Eragileei egindako kontsulten erregistroa (05. ekintza)** Emaitzen matrizea eta jardueraren akta prestatzea. Webgunean argitaratuko dira prozesuari ekitean.
- **Kanpo Foroaren lanaren erregistroa (06. ekintza)** Emaitzen matrizea eta jardueraren akta prestatzea. Webgunean argitaratuko dira prozesuari ekitean.
- **Parte hartzeko behin betiko eskuliburua.** Parte hartzeko aurretiko eskuliburuan, Gai sektorial eta zeharkakoen deskribapena txertatuko da, baita prozesuaren abiapuntu izango diren Parte hartzeko Gidan proposatutako azpigaiak ere.
- **2. Fasea amaitutakoan ekarpenak itzultzea:** faseko ekintzak laburbiltzen dituen Emaitzen matrize bat sortuko da, Parte hartzeko Gidaren edukiekin bat etorriko dena.

### 3. Parte hartzeko fasea

- **Herritarrentzako postontzi eta panelen erregistroa (11. ekintza)** Emaitzen matrizea eta jardueraren akta prestatzea. Webgunean argitaratuko dira jarduera amaitutakoan.
- **“Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak Eredu Funtzionaletan” parte hartzeko jardunaldien erregistroa (13. ekintza)** Tailer bakoitzeko akta bat prestatzea eta webgunean argitaratzea. Tailerrak amaitutakoan guztien Emaitzen matrizea prestatu eta argitaratuko da.
- **Erakundeen eta gizartearen parte-hartzearekin egindako bileraren erregistroa (14. ekintza):** Jardueraren akta prestatzea. Webgunean argitaratuko da jarduera amaitutakoan.
- **Parte hartzeko faseko ekarpenen erdibideko itzulketa:** 11., 13. eta 14. ekintzen Emaitzen laburpen-matrize bat sortuko da; matrizea webgunean argitaratuko da, parte-hartzaile guztiei bidaliko zaie eta Lurralde Historiko bakoitzean egindako aurkezpenen bidez itzuliko da.
- **Gaikako Mahaian erregistroa (16. ekintza):** Tailerren akta eta Emaitzen matrizea prestatzea. Webgunean argitaratuko dira jarduera amaitutakoan.

- **Sareetako informazioaren erregistroa** (17. ekintza): Sareen azterketa semantikoaren Eraitzen matrize bat prestatzea. Matrizea webgunean argitaratuko da.
- **Iritziak eratzeko Azken Saioaren erregistroa** (18. ekintza): Saioaren akta eta Eraitzen matrizea prestatzea. Webgunean argitaratuko dira jarduera amaitutakoan.
- **Parte hartzeko faseko ekarpenen azken itzulketa**: ekintzen Eraitzen laburpen-matrize bat sortuko da; matrizea webgunean argitaratuko da eta parte-hartzaile guztiei bidaliko zaie.

#### 4. Amaierako Fasea

- **Erakundeen eta gizartearen parte-hartzearekin egindako bileraren erregistroa** (19. ekintza): Jardueraren akta prestatzea. Webgunean argitaratuko da jarduera amaitutakoan.
- **Amaierako Faseko ekarpenen itzulketa**. Parte-hartzeko jarduerak amaitutakoan, Eraitzen matrizea eta parte-hartzearen ekarpenak jasotzen dituen azken dokumentua sortuko dira; horiek webgunean argitaratuko dira eta Lurraldearen Egunerako dibulgaziorako aurkezpen grafikoak, erakusketa ibiltari bat eta tokiko informazio-kanpaina bat sortzeko erabiliko dira.